

## Eneko Oregi

Euskaltzain urgazle izendatu berri dute  
KULTURA, 26



## 100 gidari Bergarako moto-kros sariketan

Euskadiko Txapelketarako bigarren proba puntuagarria izan zen  
KIROLA, 16-17

## King Diamond

Jam aretoan izan zen zapatuan  
KULTURA, 24



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko ekainaren 5a • 3. urtea • 104. zenbakia • 0,90 euro

## Euskal Eskola Publikoak milaka lagunen babesa jaso zuen Oñatin

*Zirkuitua ireki zuten ordutik jendez gainezka egon ziren guneak, goiz eta arratsaldez*

### TXIKIENEN JAIA

Adin tartetan banatu zituzten guneak, haur guztiak eduki zezaten zerbait eurentzako

### NATURA PROTAGONISTA

Oñatik dituen aukerak ikusita, natura ibilbideak eta tailerrak egion ziren

### ANTOLAKETA ONA

Aparkalekuetatik hasi eta informazio guneetara, antolakuntza txukuna izan zuen jaialdiak

Antolatzaileak ezin gusturago daude atzoko festak izandako erantzunarekin. Gutxi gorabehera 20.000 bat lagun espero zituzten Oñatin, eta aurreikuspenak bete egin ziren. Eguraldia lagun, goizean jendea guneetan zehar sakabanatu zen, eta arratsaldeko kontzertu eta ikuskizunek jende ugari elkartu zuten. **2-4**



JOSETXO ARANTZABAL

### ANGIOZARKO GURASOAK KEZKATUTA ESKOLA TXIKIAREN ETORKIZUNAREKIN

Jaurlaritzak datorren urterako Angiozarko eskola txikiko lanpostuak ez dituela aurreikusten jakin zutenetik, arduratuta daude Angiozarko gurasoak. Oraindik ez dute jakinarazpen ofizialik jaso, baina dagoeneko egin dituzte lehen hartu-emanak Jaurlaritzako ordezkariarekin. Batzar horietatik ez dira oso gustura irten eta atzoko Euskal Eskola Publikoaren aldeko festan elkarretaratzea egin zuten, politikariak han zirela aprobetxatuta. **8**

## Aitor Alberdi irabazle ibarreko V. triatloian

*Hector Llanosek –faboritua– lasterketa laga zuen helmugarako kilometro gutxi falta zirela* **14-15**



## Iritsi da autobusa Gatzagara

*Hilaren 12an hasiko da herritik pasatzen, oraingoaz astegunetan* **11**

## Koadrilen Eguna gaur, Bergaran

Pazkoek aurrera segitzen dute eta gaur Koadrilen Eguna ospatuko dute bergararrek; herri bazkaria eta Miss eta Mister Jator lehiaketa egongo dira, besteak beste. Eta bihar –Umeen Eguna– gauerdian esango diete agur jaiei, Bitoriatxoren igoerarekin. **5-7**

# GEUREAN

- Bizikleta martxarekin egin dute dei AHTren kontrakoek hilaren 10an Donostian | 10
- Bianiztasuna lantzeko txokoarekin hasiko da gaur Aste Berdea Arrasaten | 11

Hilaren 10ean irekiko dute eguzkia hartzeko gunea Bergarako igerialkuan | 11

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA OÑATIN**



Frontoian 0 eta 6 urte bitarteko haurren puzgarriak eta tailerrak ipini zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDE** | EGITARAUAN ARRETA BEREZIA IPINI ZUTEN HAURREK ONDO PASATZEKO

## Haurrak izan ziren euskal eskola publikoaren aldeko jaiko erregeak

*Giro bikainarekin eta eguraldi ezin hobearrekin, aurreikuspen guztiak bete eta milaka lagunek egin zuten bat Euskal Eskola Publikoa aldarrikatze festarekin*

Goreti Elortza / Jon Berezibar

Euskal Eskola Publikoak milaka lagun babesa jaso zuen atzo Oñatin. Herriko erdialdean zehar banatutako zazpi gunetan, adin guztietako haurren eta gurasoendako hamaika jarduerak gertatu zituzten antolatzaileek. Aurtan, gainera, Oñatiko parajeak aprobetxatu guran, natura eta ikuspegi garrantziaz eman gura izan diete, eta, gune bat natura

gaiei eskaintzeaz gainera, herriko inguruetan osteratxoak egiteko aukera ere egon zen. Programazioak eta eguraldi bikainak jendetza erakartzen lagundu zuen eta Karmele Mendiberen, Errekaldeko zentroko zuzendariaren, berbetan, "aurreikuspen guztiak bete dira, 20.000 bat lagunekoak". Eta, hain zuzen ere, egondako giroarekin eta jendeak izandako partaidetzarekin "oso pozik" daude antolatzaileak.

### GIROA GOIZEAN ETA JENDETZA ARRATSALDEAN

Goizeko 11etan egin zuten irekiera ekitaldia, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Tontxu Campos Hezkuntza sailburua eta Oñatiko alkate Lurdes Idoiaga han zirela. Eurekin batera alderdi politikoetako ordezkariak eta Euskal Eskola Publikoko arduradunak izan ziren.

Derrigorrezko harrera egin eta gero, Pake Leku erretiratuaren elkarteko abesbatzak abestu eta zirkuitua ireki zuten. Goiz partean gunek izan zuten protagonismoa, umeendako tailerrak ikuskizunak eta jokoak nonahi ikusi zitezkeen. Hala ere, hasieratik jendea ikusi bazen ere, arratsalde partean familia gehiago joan zirela azaltzen du Karmele Mendibek, kontzertu

eta ikuskizunengatik batez ere. Horrela, goizen jendea guneetan sakabanatuxeago ibili bazen ere, arratsalderako erdigunean ibili zen jendea eta han ere giroa paregabea izan zen. Arratsal-

**Aurreikuspena 20.000 bat lagun batzea zen, eta bete egin da**

**Goizez gunek eta arratsaldez ikuskizunek erakarri zuten jende gehien**

deko programazioak, oro har, unibertsitate ingurua eta Foruen plaza hartu zituen. Egitarauan, era berean, Santa Marina plazan kokatutako Naturgunea indartu nahi izan zuten eta horrek ere erantzun polita izan zuen han egin zituzten-eta umeendako Natur Eskolaren tailerra eta gurasoak asper ez zitezen gazta lehiaketa ere prestatu zuten. Plazatik, gainera, baserri auzoetarako osteratxoak antolatuz zituzten eta lagun ugari animatu zen, goizean, Errekalde baserria ezagutu edota Zumeltzegi dorrera gerturatzeraz aukera eskainita. Izan ere, hiriguneetan antolatu izan da orain arte Euskal Eskola Publikoaren festa, eta aurtan Oñatin natura hain eskura izatea eskertuko zuten askok.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA OÑATIN



JOSETXO ARANTZABAL

Harrera ekitaldia goizeko 11ak aldera izan zen eta jende ezagun ugari batu zen.



JOSETXO ARANTZABAL

Puzgarriak eta tailerrak umeentzat egokiak izan ziren.

FORUEN ENPARANTZA

## Askotariko ekitaldiak eta informazio puntua

Herriko plaza izan zen igandeko XV. jaiaren protagonista. Jende ugari batu zen han egin zuten hasiera emanaldian, goizeko hamaikak aldean. Informazio gunea ere hango kioskoan jarri zuten; han hainbat antolatzaile zeuden, ibilaldiko mapak banatu eta beste edozein galderari

erantzuteko prest. Ondean, Euskal Eskola Publikoaren aldeko kamisetak saltzen aritu ziren.

Egun guztian zehar izan ziren ekitaldiak lehenengo gunean. Eguerdian, umeek herri kirolak praktikatzeko aukera izan zuten: sokatira eta harri-jasotzea, besteak beste.

Ondoren, Tapia eta Leturiaren kontzertua egon zen. Sekulako giroa sortu zuten trikitilariak eta batek baino gehiagok gustura dantzatu zuten euren musikarekin. Bazkaldu ondoren, batukada dantzatu zuten herriko gaztetxoek.

Arratsaldeko seietan Oskorri taldea izan zen protagonista gune hartan. Eguraldia lagun, bete egin zuten Foruen enparantza talde ezagunak.

FRONTOIA

## Tailerrak eta puzgarriak gazteenen gunean

Foruen enparantzako frontoian txikiendako gunea egokitu zuten. Han, 0-6 bitarteko neska-mutilak izan ziren protagonista. Txatxilipurdiko lagunak laguntzarekin tailerrak eta puzgarriak egon ziren bigarren gunean.

Frontoian bertan Eroski eta Euskadiko Kutxak ere izan zuten

gune propioa. Ekitaldi guztiak gazteendako izan ziren erdialdeko gunean.

Gainera, eguerdian merkaturako plazan galiziar erara presatutako olagarroa dastatzeko aukera eskaini zieten hara gerturatutako. Gurasoek ere izan zuten gozatzeko aukera, bada.

ETXALUZE

## 6-12 urteko gazteendako giro aproposa egon zen

Hirugarren gunea ere gaztetxoek eskaini zioten. Bertako arduradunak Txatxilipurdi elkarteak izan ziren eta jo eta su jardun zuten gazteekin egun guztia. Taldeko kideek gazteendako tailer ugari jarri zituzten Etxaluzeko parkean. Argazki tailerra, txapa tailerra... izan ziren jende gehien batu zutenak. Tailer horiek *Bihurrikeixatan* izeneko txokoran egon ziren. Puzgarriak ere izan zuten bere lekua gunean. Saltoka ibili ziren egun guztian zehar ehunka ume. Guneak sarreran taloak egiten jardun

zuten Oñatiko talogileek. Jende asko hurbildu zen, eguerdi aldean batik bat.

*Betizu* klubeko lagunak ere izan zuten gune berezi bat hirugarren gunean: ETB gunea, hain justu. 12:00etan ikuskizuna egin zuten *Betizu*-koek, eta ume ugari batu ziren taula ondoan.


Arratsaldean, berri, Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoen emanaldia egin zuten. Majo egin zuten barre han zeudenean, ume zein gurasoek. Horren ondoren, *Kanpanolue!* berbena saltseroa egon zen.



JOSETXO ARANTZABAL

ETBko *Betizu* klubak egin zuen emanaldia gazteen gunean.

• PARTE-HARTZAILEEK DIOTE



IMANOL ARKAUX | OÑATI

“Espero baino jende gehiago dabil, momentuz”, adierazi zuen informazioko kideak. “Kioskora hurbildu den jende gehiena plana hartzera etorri da, gunez galdezka”.



JONE, VIRGINIA ETA NEREA | LEGAZPI

Koadrila handia etorri zen Legazpitik Euskal Eskola Publikoaren jaira. Neska horiek autobusean etorri ziren eta ilundu arte gelditzeko asmoa zuten. “Gune guztietara joango gara, dena ikusteko asmoa daukagu. Oso ondo antolatuta dagoela ematen du, denetik dago, eta merezi du etortzea”, adierazi ziguten legazpiarrek.



NEREA ETA AMAIA | OÑATI

“Adinka daude guneak antolatuta eta antolatzaile talde txikiak gaude gune bakoitzean. Gu irakasleak gara. Antolakuntzan, gurasoen laguntza oso handia izan dela esan behar da”, esan zuten bikoteak. Euren bigarren gunea egokitu zaie; gaztetxoek gunea, hain zuten ere.



JESUS ETA NANDI ALABEKIN | ZARAUTZ

Autobusean etorri zen Zarautzik familia hori. “Gune guztiak ikusi eta eguraldia lagun ondo pasatzera etorri gara. Ondo antolatutako jai dela dirudi”. Euskal Eskola Publikoa bul-tzatzeko jai aproposa iruditu zaie.

## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA OÑATIN



JOSETXO ARANTZABAL

Gustura jardun zuten gaztetxoek antolatutako tailerretan.



JOSETXO ARANTZABAL

Break-dance modako dantzak ikasteko ahaleginak ere egin zituzten.

## SANTA MARINA

## Naturaz gozatzeko aukera eskaini zuen Naturguneak

Natur Eskolaren eskutik naturarekin lotutako haurrentzako tailerrak izan ziren laugarren gunean protagonista. Txikien Txokoa izeneko gunetxoan ume ugari hartu zuten parte eguerdi aldeko tailerretan.

Egun osoan zehar artzaintzari buruzko erakusketa jarri zuten Santa Marinako plazan, eta

Idiazabalgo gazta dastatzeko aukera ez zuen galdu hara gerturatutako jendeak.

Gainera, euskal herriko herri askotatik etorritako base-rritar eta artisauek ere azoka moduko bat jarri zuten. Han, euren produktuak saldu zituzten. Lehengo artisautza tresnen erakusketa ere izan zen.

## PORTUKALE

## Modako dantzak eta grafitiak 5. gunean

Hura izan da Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaietan gurekin berritzaileena. Bosgarren gunea ere gazteentzat bereziki eskainia, modan dauden dantza eta doinuak entzun ahal izan ziren. Bertan, 11:00etatik 14:00ak arte, gaur egun oso modan dauden break-dance eta hip-hop dantzen tailerrak egon ziren. Baita

scratch eta DJ tailerrak ere. Gazte asko hurbildu ziren bertara eta ikasteko ahaleginetan ibili ziren. Eta horietako batzuk nahiko ondo moldatu ziren break-dance delakoan.

Gainera, grafitiak egiteko panelak eta espraiak eskaini zituzten antolatzaileek, guztiek parte har zezaten.

Bazkaldu ondoren, 16:00etatik 18:00etara, break dantzarien erakustaldia egon zen. Harrituta gelditu zen jendea dantzariak emandako ikuskizunarekin. "Gomazkoak al dira?", galdetzen zuten jende askok haiek egiten zituztenak ikusita.

Gaur egungo joerak izan ziren, beraz, protagonista bosgarren gunean, eta gazteek asko eskertu zuten antolatzaileen laguntza gune hura antolatzeko orduan. Joera berri ere eman behar zitzaizkien lekua...



JOSETXO ARANTZABAL

Elektrotunok giro aparta sortu zuten gazteen gunean eta herri osoan zehar.

## UNIBERTSITATEA

## Gazteen gunea: abentura asko eta kontzertuak

Seigarren gunean aukera desberdin ugari egon zen egun guztian zehar. Bi azpigunetan banatuta, umeentzako zein nagusientzako ekitaldiak antolatu zituzten goizetik iluntzera arte. Unibertsitate aurrealdean eskalada egiteko aukera eman zieten gazteei. Gainera, tirolina eta rapela egitera ere animatu


ziren ausartenak. Oso gustuko izan zuten abentura txokoa hainbat eta hainbat gaztek.

Euskal dantzen erakustaldia egin zuten Zuhazti eskolako, Urdaneta eskolako eta Oñatz taldeko lagunek goizean.

Arratsaldeko lauretan, Gose, Sharon Stoner eta Potemkin taldeek giro itzela sortu zuten uni-

bertsitateko gunean. Hiru taldeek gogo biziz jo zuten Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaietan, eta gazte asko batu ziren bertan.

Bestalde, unibertsitateko klausuroan, *La Ruta del Chocolate* izeneko erakusketa jarri zuten. Bertan, txokolataren historia eta janari gozo horri buruzko hainbat bitxikeria irakurtzeko aukera egon zen. Oñatiarrentzat produktu garrantzitsua da txokolatea. Kofradia bat ere badute herrian.



JOSETXO ARANTZABAL

Kubari buruzko dokumentazioa ikusgai egon zen.

## OLAITURRI

## Karibeko doinuendako leku berezia azkeneko gunean

Euskadi-Kuba gunean jokoak, ipuin kontalariak, txapa eta grafiti tailerrak izan ziren nagusi. Ekintza gehienak gaztetxoentzako izan ziren aproposak han ere. Izan ere, haur eta gazteendako jaia antolatu nahi izan dute antolatzaileek eskolaren jaietan.

Tailerretako baten Kubako lagun bati idazteko aukera eman

zieten gazteei, Euskadi-Kuba harremana sendotzeko. Umeendako puzgarriak ere ez ziren falta izan azken gune horretan. Beste hainbat ekitaldi ere antolatu zituzten gunean: arratsaldean, esaterako, kubatar dantzen erakustaldia egin zuten han. Gainera, Kubari buruzko liburu eta dokumentuak izan ziren ikusgai.

# Koadrilen Eguna ospatuko dute gaur, herriko jaiekin aurrera eginda

*Herri bazkaria, eta 'Miss' eta 'Mister' Jator lehiaketa egingo dituzte herriko koadrilek*

*Barrakak merkeago izango dira gaur: euro baten truke bi bidaia egin ahal izango dira*

*Bihar, martitzena, Umeen Eguna da eta baita jaiei agur esateko ordua ere*

Monika Belastegi

Asteburua gutxi ez eta oraindik beste bi egun geratzen zaizkie bergarrei Pazkoez gozatzeko. Gaur, astelehena, egun berezia izango da hainbatendako, Koadrilen Eguna da-eta. Horren harira, gainera, hainbat ekitaldi antolatu dituzte: besteak beste herri bazkaria eta Miss eta Mister Jator lehiaketa –parte-hartzaileek bainujantzian desfilatu beharko dute, beste gauza batzuen artean–.

Nabarmentzekoa da, bestalde, gaur, astelehena, eta etzi, eguaztena, barraken prezioa merkatu egingo dela. Euro baten truke bi bira eman ahal izango dira –gainerako egunetan 1,5 euro balio du bira bakoitzak–.

Herritar askok oso gustuko duten beste ekitaldi bat sokamuturra izaten da. Atzo goizean izan zen lehenengoa eta gaur eta bihar ere izango da. San Martin eta Munibe plazetan eta Barrenka-lean izango da, 08:30ean hasita. Hala, Udalak gogora ekarri nahi izan du 14 urtetik beherakoek debekatuta dutela parte hartzea, baita alkohola edo beste droga batzuk hartu dituztenek ere.

## JENDE ASKORIK EZ

Guztien ahotan ibili den kontua izan da aurten ere: ez da jende askorik ibili asteburuan. Kale garbitzaileek zabor kopuruan garbi igarri dute hori. 10.000 kilo inguru jaso dute –16-17 tona jasotzen zuteneko garaiak gogoan dituzte oraindik–. Bestalde, atzo goizean txosna garbitzeko aukera izan zutela ere gehitu dute –joan deneko urteetan egin ezin izan dutena, jende asko zegoelako–. Tabernariak ere iritzi berekoak dira. Osterantzean giro ona egon da eta udaltzainek esan dutenez ez da aparteko gertakaririk izan.

**Aurten ere ez da jende askorik ibili asteburuan: zapatuan barikuan baino gehiago**

**Bihar gauerdian esango diete agur Pazkoei Bitorianatxoren iguerarekin**



Barikuan, 20:00etan, herritar ugari batu zen Bitorianatxori ongietorria egiteko. Apartheidaren kontrako kartelak erakutsi zituzten hainbatek.

PAZKOAK BERGARAN



Etxafuego eta petardoaren zarataren aurrean, onena belarriak estaltzea da.



Unai Santos eta Garazi Lekuona lezoarrak izan ziren 15 urtetik beherakoendako dantza solteko sariketako irabazleak.



Gaur eta bihar ere egongo da sokamuturra, 08:30ean hasita.



Bakailao lehiaketan saria jaso zuten hiru elkarteetako ordezkariak pozik itzuli ziren etxera.

• GAZTETXOENEK ZERA DIOTE JAIEN GAIENAN:



UXUE, ANE ETA AMAIA | BERGARA

**"Egitarauan ez dago gauza interesgarri gehiegirik eta dantzarako musika faltan sumatu dugu"**


Oso pozik daude eta oso ondo ari dira pasatzen herriko jaiak. "Barrakak gustatzen zaizkigu gehien", esan digute, eta, "bestela, egitarauan ez dago gauza interesgarri gehiegirik", gehitu dute. Musika ere oso gustuko dute, baina dantzarako musika faltan sumatu dute.



AMAIA, LIBE ETA ELENE | OSINTXU (BERGARA)

**"Etxafuego eta petardo gutxiago bota beharko lituzkete, ez zaizkigu batere gustatzen"**

Barrakak oso gustuko dituzte "baina oso garestiak dira", esan digute; "ezin dugu nahi beste bira eman gustuko ditugun barraketan". Bestalde, etxafuegoak eta petardoak ez dituzte batere gustuko eta halako gutxiago bota beharko lituzketela uste dute Osintxuko hiru neskatxook.



ANDONI ETA GORKA | BERGARA

**"Petardoak eta Bideberriko kontzertuak gustatzen zaizkigu"**

"Oso ondo pasatzen ari gara. Gehien petardoak gustatzen zaizkigu eta jaietan erosi eta botatzeko aukera izaten dugu. Horrez aparte, Bideberriko rock kontzertuak ere oso ondo daude".

PAZKOAK BERGARAN



Aurten ere barrez jarri dute jendea eskoziarrek.



Preso eta iheslarien omenezko bazkarian edozer izan zen ona eguzkitik burua estaltzeko.



Gaur eta etzi euro baten truke bi bira izango dituzte umeek barraketan.



Txosnak eta hango kontzertuak izan dira ekitaldirik jarraituenetakoak.



San Martin plazara jaitsi dute aurten Beartekoek margo lehiaketa. 50 bat neska-mutikok hartu zuten parte. Irudian, saria jaso zuten 30ak, pozik.

Egitaraua

ASTELEHENA, 5

- 08:30: Sokamuturra.
- 10:30: Plater tiroketa, Goriako Irubide zelaian.
- 11:00: Koadrilen elkartzea eta txorizo hamaiketakoa, San Martin plazan.
- 11:00-15:00: Barrakak merkeago: euro batekin bi bidaia.
- 12:00: Koadrilen arteko jolasak, San Martin plazan.
- 12:30: Tarantella taldearekin eguerdiko kontzertua, Espoioian.
- 14:30: Herri bazkaria, San Martin plazan.
- 17:00: Koadrilen arteko jokoak, San Martin plazan.
- 18:30: II. Miss eta Mister Jator Lehiaketa.
- 19:00: Bergara-Hiria pilota txapelketako finalak.
- 19:30: Triki-kalejira.
- 22:30: Kontzertua Bideberrin: The Hound Dogs, Belceblues eta Saddle Tramps taldeekin. Segidan, Dj Bull.
- 23:00: Imuntzo eta Belokirekin erromeria, San Martin plazan.
- 23:00: Camp dantzaldia Espoioian, Tarantella taldearekin.

MARTITZENA

- 08:30: Sokamuturra.
- 11:00-14:00: Mendekoste jaietako lehiaketara aurkeztutako kartelen erakusketa, udaletxeko arkupeetan.
- 11:30-13:30: Herri tren.
- 11:30-13:30: Haurrendako jolas parkea, Ipintza Iln.
- 12:30: Herri-kirol erakustaldia, San Martin plazan.
- 16:00: Umeendako kale antzerkia, Munibe plazan.
- 17:00: Capellan-Nalda III.a/Berasaluzte IX.a-Goñi III.a. Gonzalez-Eulate/Xala-Pascual. Baleztena-Urberuaga/Apezetxea-Galarza VI.a.
- 17:00-20:00: Herri tren.
- 17:00-20:00: Umeendako jolasparkea, Ipintza Iln.
- 20:15: Gaztetxoendako Kanpanolue dantzaldia, Munibe plazan.
- 22:00-00:00: Tximeleta taldearekin dantzaldia, San Martin plazan.
- 00:00: Bitorianatxoren igoera, agurra eta jai amaiera ekitaldia.
- 00:30-02:00: Tximela taldearekin dantzaldia, San Martin plazan.

Herrian artista harrobi itzela dagoela argi laga zuen zapatuan plastika sariketak

Zapatu goizean Haur eta Gazteen Plastika Sariketa izan zen, Beartek antolatuta. 50 bat neska-mutikok hartu zuten parte, adinaren arabera hiru mailatan banatuta, eta horietatik 30ek -maila bakoitzeko 10ak- jaso zuten saria. Askotariko lanak egin zituzten: mihise gaineko margolanak, marrazkiak, plastilinazko irudiak... Aurten lehenengoz San Martin plazan egin dute sari ematea eta horrek giro ezin alaiagoa eman zion plazari.

Bederatzi elkarte lehian eta San Blas ekarman zuen sari handia bakailao lehiaketan

Elkarteen arteko XIV. sukaldaritzako lehiaketa izan zen zapatuan. Bederatzi elkartek hartu zuten parte eta bakailaoa prestatu behar izan zuten pil-pil erara. Mimo handiarekin aritu ziren, eta San Blas elkarteko Iñaki Olabarriak eta Jose Gabilondok jarri ei zuten mimo handien, eurek eroan zuten eta lehen saria. Bigarren, Artatse elkarteko Mikel Gomez eta Carlos Olabarria izan ziren eta hirugarren, Madurako Jose Mari Markiegi eta Gabriel Madina.

Garazi Lekuona eta Unai Santos lezoarrak garaile dantza solteko txapelketan

Atzo arratsaldean Euskadiko Bikote Gazteen 29. Dantza Solteko Txapelketa jokatu zuten San Martin plazan. 12 bikotek hartu zuten parte eta irabazleak izan ziren Garazi Lekuona eta Unai Santos lezoarrak. Bigarren, Irantzu Larrañaga azpeitiarrak eta Iraitx Olariaga azkoitiarrak osatutako bikotea izan ziren. Hirugarren, berriz, Amaia Bolinaga eta Aritz Arrillaga bergararrak. Jantzi dotoreenaren saria ere Lezoko bikoteak eroan zuten.

BASERRITAR ETA ARTISAUEN AZOKA | 10. EDIZIOA OSPATU ZUTEN ESKORIATZARREK

# Goizetik gauerako ekitaldiek oso harrera ona izan zuten

*Dantzek, txorimaloek, herri bazkariak, diaporamak eta beste ekintza batzuek bete zituzten Eskoriatzako kaleak artisau eta baserritarren zapatuko azokan*

Goreti Elortza

Eskoriatzako feriak 10. edizioa bete zuen zapatuan. Arizmendi Ikastolak antolatutako azokak egitarau zabala izan du aurten-goan. Urteurren berezia zela-eta, Goizean goiz hasita, iluntzera arte iraun zuen egun berezi horrek sortutako giroak.

10:30ean eman zioten hasiera azokari. Han, baserritar eta artisauen postuez gain, Arizmendi Ikastolako ikasleek jarritako postuak ere bazeuden. Baita zenbait elkartetako postuak ere. Eurek egindako bitxiak edota bonboiak saltzen aritu ziren ikasleak. Izan ere, urtero jartzen dituzte postu batzuk, eurek ere zuzen-zuzenean azokaren parte izan nahi dute-eta.

81 postuetan barrena, baserriko elikagaiak, herri askotatik etorritako artisauen lanak, animaliak eta beste hainbat bitxikeria ikusteko aukera izan zuten han batutakoek. Bestalde, urteroko txorimaloen lehiaketak aur-

ten ere harrera ona izan du. Denera 25 txorimalo aurkeztu zituzten lehiaketara Eskoriatzako gaztetxoek. Taldeetako askok esan zigutenez, oso gustuko dute lehiaketa hori, eta guztiak irabazteko asmoz aurkeztu ziren.

Tailerrak ere izan ziren, gaztetxoendako. Herriko plazan, pilotak egiten edota aurpegiak margotzen aritu ziren. Leku berean txahala erre zuten eta iluntze aldera dastatzeko aukera izan zen.

## AZOKAREN SARI EMATEA

Eguerdian, Arizmendi Ikastola aurrean euskal dantzak egin zituzten gaztetxoek eta ondoren sari banaketa hasi zuten. Baserritarren saria Apotzagako baserritarrendako izan zen, Mertxe Alberdi buru zutela. Artisauen saria Jabier Etxebarrieta *Patas-ek* jaso zuen eta herritik kanpoko postu politenaren saria, berriz, Roman Aduriz oiartzuarra eraman zuen.

Ondoren, herri bazkaria egin zuten pilotalekuan.



Jende ugari gerturatu zen baserritar eta artisauen azokaren 10. edizioa.

JOSETXO ARANTZABAL

## • ADIN GUZTIENDAKO EGUNA



**SALTOKIAK.** Eskoriatzako kaleetan zehar 81 postu ipini zituzten. Artisauen lanak erosteko aukera izateaz gain, euren lana gertutik ezagutzeko aukera ere egon zen. Izan ere, euren saltokietan bertan lanean ziharduten, argazkikoa bezala.



**TXORIMALOAK.** Eguerdian aldera egin zuten sari ematea. Txorimalo guztiak oso politak zirela-eta, epaimahaiak guztiak saritu zituen. Talde bakoitzak kopa bat eta ekainaren 16an frontoian egingo den meriendarako gonbidapena jaso zuen.

# Angiozarko eskola txikiaren etorkizunak kezka sortu du

*Jakinarazpen ofizialik ez jasotzen, gurasoak dagoeneko egon dira Jauralaritzarekin*

Jon Berezibar

Auzoko eskola txikiaren etorkizunarengatik "arduratuta" daude gurasoak Angiozarren (Bergara). Izan ere, duela bi aste jakin zuten, sindikatuetatik, datorren urterako Jauralaritzak ez dituela Angiozarko eskolako lanpostuak aurreikusten. Horrek alarma piz-

tu eta joan den astea ezker Jauralaritzako ordezkariekin eta Udalarekin bileretan ibili direla azaldu du Ainhua Larrañagak, gurasoen elkarteko kideak. Haren berbetan, "oso disgustura" atera dira Jauralaritzarekin egindako bileretatik eta oso ezkontzat jotzen dituzte administrazioak eskola txikiak duen jarrera.

Hala ere, oraindik ez dute jakinarazpen ofizialik jasotzen Angiozarren, baina ezinezona adierazteko agerraldia egin zuten domekan Oñatin, Euskal Eskola Publikoko jaian, Jauralaritzako ordezkariak egon zirela aprobetxatuta. Horren harira, Tontxu Camposek, Hezkuntza sailbu-

ruak, "momentuz gaia aztertzen" dabilzala adierazi zuen: "Kontua da baliabideei etekin soziala ateratzea, ze Jauralaritzako ratioa 17 ikaslekoa da eta Angiozarren 10ekin utziz gero, beste leku baten gabe geratuko liriteke, eta gure lana oreka hori bilatzea da". Sailburuak azaldu zuenez, datozen urteetako proiektioak egiten dabilza, ikusteko etorkizunean ze behar egon daitezkeen eta eskaria ikusi.

Guraso taldeak, era berean, Bergarako alkatearena ere jo zuen joan den astean, eta hark Tontxu Camposekin bilera egiteko konpromisoa hartu zuela esan du Ainhua Larrañagak.



Euskal Eskola Publikoaren jaian plazaratu zituzten gurasoek eskakizunak.

JOSETXO ARANTZABAL



# EKAINAREN 5a INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## Urtzen ari naiz

### Eta nirekin urtuko dira hondartza guztiak

Hondarribia, Zurriola, Kontxa, Ondarreta, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku, Arrigorri, Karraspio, Isuntza, Ogeia, Ea, Laga, Laida, Kanala, Kanalape, San Antonio, Laidatxu, Toña, Hondartzape, Aritxatxu, Bakio, Armintza, Gorliz, Plentzia, Muriola, Barrika, Meñakoz, Arrietara, Barinatxe, G o r r o n d a t x e , Arrigunaga, Ereaga, Las Arenas, Zierbena, La Arena...

Guztiok bat eginik, Euskadi Klima Aldaketari aurre egiteko gauza izango da. Ekin orain. Beranduegi izan baino lehen.



ingurumena.net

*Gure esku dago*

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

ELKARTASUN AZOKA | IBARREKO GKE-EK LAGUNTZA PROIEKTUAK AURKEZTU ZITUZTEN ZAPATUAN ARRASATEN

# GKEek elkartasuna sustatu gura izan zuten, sentsibilizazioan eraginda

*Bombayn dagoen neskabilen umezurtz-etxe baterako dirua batzen dabil Arrasateko Harreman erakundea, eta horren zein beste proiektuen berri eman zuten azokan*

Jon Berezibar

Seber Altube plazan zapatuan egindako azoka urte osoko ahalgintaren erakusleioa besterik ez da. Aurtengoan, zortzigarren edizioa izan dena, Harreman, Activos Por Un Mundo Solidario, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Serso eta NUBI erakundeak ibili dira antolatzailerak, eta, urtero moduan, sentsibilizazioa izan da lehenik bete gura izan zuten helburua. Ohiko ibarreko taldeen postuez gain, Intermon-Oxfam, Alboan, Amnesty International, Pobrezia Zero eta Brigadetako ordezkariak ere lantzen dabilzan proiektuak aurkeztu zituzten eta saltokiak ipini zituzten. Guztia borobiltzeko, musika eta antzerkia egon ziren, eta, eguraldi politarekin, jendea ia etengabe ibili zen goiz eta arratsalde.

Azokaren mutur baten kokatutako tonbolak girotu zuen jendea hasieratik. Ibai Arteko dendek emandako produktuekin zozketak egin zituzten eta sari bakoitzeko kanpaia jotzen zuten, azoka guztiak jakin zezan. Horrela, goizak aurrera egin ahala, plazara jendea animatzen hasi eta bizitasuna hartu zuen azokak. Oro har, bidezko merkataritzako produktuen saltokiak eta

Indiatik ekarritako zapi eta pitxien postuek erakarri zuten jendearen arreta. Azokarekin, aurten Indiarako batu gura dute dirua. Harremanekoek Bombayn dagoen neskabilen umezurtz-etxe bati eman gura diote laguntza eta horretarako 94.000 bat euro lortzea da nahia, urte oso bateko gastuekin aurrera egin ahal izateko. Tonbolaz eta postuez gain, urte osoan zehar dago zabalik Eroskiko bidezko merkataritzako dendak, eta dagoeneko zortzi urte bete ditu dendak zabalik.

## LAGUNTZA EMATEKO AUKERA

Era berean, bai zapatuko azokan parte hartutako taldeek zein Debagoienean lanean dabilzan talde eta gobernuz kanpoko erakundeek boluntario eske jarraitzen dute, azoketan eta halako ekintzetan lagundu edota tailer nahiz ekitaldien antolakuntzan parte hartzeko.



Bidezko merkataritzako produktuak dastatzeko ipini zituzten Harremanekoek, beti egin izaten duten moduan.

## • ELKARTASUN EGITASMOEN BERRI EMAN ZUTEN TALDEEK



AGURNE | NUBI

*Oporrak bakean delako* kanpaina aurkeztu zuten NUBIkoek. "Saharar haurrak euskal familietan udan hartzeko dei egiten dugu eta oraindik Arrasaten batzuk falta zaizkigu", dio Agurnek. "Interesa duten familiek gugana jo besterik ez dute".



ANDONI | HARREMAN

"Sentsibilizazioa da egun honen helburu nagusia, elkarteetan lana erakutsi elkartasuna bilatzeko", azaltzen du Andonik. "Poliki egin beharreko lana da hau, jendea konturatzeke, baina zalantza barik lagungarria da azoka."



SAIOA ETA IRATI | ARIZMENDIKO IKASLEAK

"Urtero egiten dugun moduan, aurten ere Ankurrekoekin kolaboratu dugu ikastolako ikasleek. Bombayko eskola batera bidaliko dute jasotako laguntza, neska-mutikoei laguntzeko", diote neskatoek. Iaz diru dezente batu zuten eta eskola-materiala erosi zuten. "Aurten, baina, janarian inbertituko da dirua, arroza erosteko, horren beharra dago-eta". Jendeari kolaboratzea kosta egiten zaiola aipatu zuten neskatoek.

## Manifestaziorako dei egin zuten AHTren kontrakoek

Goreti Elortza

Eskoriatzako AHTren Aurkako Asanbladak beste ekitaldi bat antolatu zuen zapatutarako: bizikleta martxa, hain justu ere.

Bizikleta martxa horrekin datorren zapatuan, ekainaren 10ean, Donostian egingo den manifestaldirako dei egin nahi izan zuten asanbladako kideek. "Herritarrak animatu nahi ditugu datorren zapatuko manifestazioan parte har dezaten; hori izan da, batez ere, bizikleta mar-

txa honen helburua", esan zigun asanbladako kide batek.

### ESKORIATZATIK ARRASATERA BIZIKLETAN

11:00etan elkartu ziren Eskoriatzako plazan bizikleta martxan parte hartu zuten kideetako batzuk. Handik Aretxabaletara abiatu ziren eta han beste lagun batzuk gehitu zitzaizkien. Gero, Arrasatera joan ziren eta han amaitu zuten martxa, betiere, hilaren 10eko manifestazioa gogoratuz bidean barrena.



Bizikleta martxako parte-hartzaileak Eskoriatzan.

## Labur

### Semaforoak Angiozarrerako errepidean

Angiozarrera doan errepidean semaforoak jarriko dituzte AP-1 autobidearen azpian dagoen tunelaren bi sarreretan. Tunela konpontzeko lanak hasiko dituzte gaur, astelehena, eta lanok iraun bitartean tunelaren alde bateko edo besteko ibilgailuei irekiko die bidea semaforoak. Eusko Jaurlaritzako Bide Azpiegiturarako departamenduaren arabera, hila-bete inguru iraungo dute lanek.

## Albiste izango da

DEBAGOIENA | DEBA GARAIA ELKARTEAK DEITU DU

### Nekazaritzarako ideia eta proiektu berritzaileen sariketa deitu dute

Landa Garapenerako Elkartek landa eremuko identitate eta bizi kalitatearen alde lan egitea du helburu, eta, horretarako, nekazaritza arloarekin zein landa garapenarekin zerikusia duten ekimenak suspertu eta garatzen ditu. Horren haritik, ideia eta proiektu berritzaileen hirugarren sariketa deitu du. Betebeharrak dira, besteak beste, proiektua Debagoiengan garatzeko modukoa izatea eta Debagoiengan gauzatu gabekoa izatea. Proiektuon aurkezpen epea irailaren 22an amaituko da. Informazio gehiago Deba Garaia Elkartearen (943 76 25 47).

ARRASATE | HILAREN 10EAN PRESO ETA IHESLARIEN ALDE

### Elkartasun Eguneko bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte

Portaloira Topaguneak Elkartasun Eguna antolatu du ekainaren 10erako. Topaguneak, sortu zenetik, preso eta iheslari politikoen eskubideen defentsan dihardu lanean, eta oraingoan Elkartasun Eguna antolatu du, aldarrikapena eta jaia uztartuko dituen eguna. Egitarau zabala antolatu dute: 11:00etan, herriko hainbat gunetan, koadrilen arteko herri kirolak, umeendako jokoak eta talogileak egongo dira; 14:30ean, herri bazkaria egingo dute Monterronen. Txartelak salgai daude, 10 eurotan, Irati, Ekaitz, Kajoi eta Ziorlan. 17:00etatik 19:00etara, herriko 18 tabernatan kontzertuak egongo dira; 19:30ean, manifestazioa egingo dute Seber Altubetik abiatuta eta egunari bukaera emateko, kontzertua, 21:30ean, Monterronen.

ARRASATE | ESKORIATZAN ERE DEITU DUTE

### Bioaniztasuna lantzeko txokoarekin hasiko da gaur Aste Berdea

Udaleko Ingurumen Sailak antolatu du. Gaur, astelehena, hasiko da eta gero, hurrengo bi domeketan jarraituko dute ekitaldiek. Bioaniztasuna lantzeko jolasak eta eskulan txokoa izango dira gaur, Seber Altuben, 17:30etik 19:30era bitartean. Arrasate eta Euskal Herriko bioaniztasunaren gaineko panelak ere egongo dira. Horrez gain, hildako zuhaitzen inguruan sortzen den bizitzaren gaineko informazioa emango dute Santa Barbaran, 19:30etik 20:00etara.

Eskoriatzan ere antolatu dute eta hainbat mahai inguru egongo dira: gaur, astelehena, energia nuklearraz jardungo dute; bihar, erregai fosilez eta klima aldaketaz eta egunean, mugikortasunarekiko alternatibez. Hiru mahai inguruak Ibarraundi museoa izango dira, 19:00etan.

GATZAGA | EKAINAREN 10EAN GAU-TXORIA IRITSIKO DA

### Ekainaren 12an hasiko da autobus zerbitzua herritik pasatzen

Martitzenean baieztatu zioten Foru Aldundiko arduradunek Joxerra Perez alkateari berria: autobusa ekainaren 12an hasiko da pasatzen Gatzagatik. Goizean bi pasatuko dira eta arratsaldean, beste bi, astelehenetik egubakoitzera bitartean. Eta asteburuetakoa lortzeko eztabaidan jarraitu beharko dutela adierazi zuen alkateak.

Ekainaren 10etik aurrera, bestalde, gau-txorria helduko da Gatzagaraino. Arrasatetik bueltan datorrena izango da, eta bi autobus etorriko dira, erabiltzaileak baldin badaude, behintzat.

BERGARA | UDA KANPAINA ERE ZABALDU EGIN DUTE

### Hilaren 10ean irekiko dute eguzkia hartzeko eremua igerilekuan

Udaleko Kirol Zerbitzutik aditzera eman dutenez, gaur, ekainak 5 eta bihar, ekainak 6, itxita egongo da igerilekua Mendekoste jaiak direla eta. Horrez gain, jakinarazi dute datorren zapatuan, ekainak 10, kenduko diotela estalkia igerilekuari. Era berean, egun horretan zabalduko dute eguzkia hartzeko eremua. Bestalde, gogorarazi dute uda txartelak ekainaren 10etik irailaren 15era arteko balioa izango duela.

Udako kanpainari dagokionez, eskaintza zabala egin dute Kirol Zerbitzutik. Izenemateari dagokionez, ekainaren 7an eta 8an hasiko direla gogorarazi nahi izan dute.

## Hitzorduak



ERRETIRATUEN ASTEAN, EGUNERO IZANGO DIRA EKINTZAK OÑATIN |

### Gaur, astelehena, hasiko dira ospakizunak bingo saio batekin

Erretiratuen Astea ospatzen hasiko dira Oñatiko Pake Lekuko erretiratuak gaur, astelehena, bingoarekin, 18:00etan. Ospakizun nagusia domekan izango da: meza parrokiar (12:30), bi nagusiri omenaldia; bazkaria kiroldegian, eta opari zozketa. Bazkarirako txartelak salgai daude Pake Lekun.

Honako beste ekintzak izango dituzte: iruzurren gaineko hitzaldia (martitzena, 17:00), ibilaldia eta hamaiketakoa San Martinen (etzi, eguaztena, 10:30); txokolatada euren egoitzan (egunean, hilak 8, 18:00); eta afari-merienda eta, segidan, dantzaldia euren egoitzan (eguna, hilak 9, 18:30).

ARRASATE |

#### • Kantabriara irteera egingo dute Abaroako bazkideek

Kantabriara irteera egingo dute Abaroako erretiratuek hilaren 21ean. Izenematea hilaren 13an bukatuko da, eta txartelak hilaren 19an banatuko dituzte.

#### • Ezkontza aurreko topaketak egingo dituzte

Ezkontza aurreko topaketak egingo dituzte gaur, astelehena, hasi eta hilaren 9ra, San Andres parrokiako lokaletan, 20:00-22:00.

#### • Arrasate Musikalen izena emateko epea zabaldu dute

4 urtetik gorako hezkuntza helduendako ere bai, instrumentu-hezkuntza eta dantza eskolak daude, besteak beste. 17:00-20:00 da idazkaritza orduategia.

#### • San Juan jaietako Dragoi Jana antolatzeke jendea

San Juan jaietako Dragoi Janerako laguntzaileak behar dituzte. Interesa dutenek 943 77 12 28 telefonora deitu behar dute.

BERGARA |

#### • Musika eskolan matrikula egin daiteke

Eskolan bertan egin behar da matrikula. Eskaintzen dira instrumentu musikalak, aurrehizkuntza eta hizkuntza musikalak, biolina, musika hezkuntza berezia, gitarra eta baxu

elektronikoa eta taldeetan parte hartzeko aukera.

#### • Bidezko merkataritza azoka egingo dute

Bidezko merkataritza azoka egingo dute datorren domekan, hilak 11, Mariaren Lagundia ikastolan, 11:00etatik 19:00etara. Bergarako FISC Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatzen du.

DEBAGOIENA |

#### • Miguel Altunan matrikula egiteko aukera dago

GLHABI Miguel Altuna institutuan zabalik dago aurrematrikulazio kanpaina hilaren 7ra arte, 09:00-13:00 eta 15:30-17:00 orduetartean. Jaietan ere zabalik egongo da.

ELGETA |

#### • Bi begirale behar dituzte udako aisialdi programarako

Ekainaren 26tik uztailaren 28ra, 3-6 urte bitarteko umeei aisialdi programa eskainiko die Udalak, eta horretan lan egiteko bi begirale behar dituzte. Argibideak, Udal Kirol Zerbitzuan edo 943 76 80 22 telefonoan.

#### • Eskola txikien jaira joateko autobusa antolatu dute

Eskola txikien jaia Igeldon ospatuko dute hilaren 11n, eta autobusean joateko izenematea guraso elkartearen egin behar da.

• Adobe Acrobat Reader

#### programa ikasgai izango da

Programa hori erabiltzen irakatsiko dute etzi, eguaztena, KZgunean, 16:30-18:30.

ESKORIATZA |

#### • Ludopatía eta mendekotasun berriak

Ludopatiak eta menpekotasun berriak delako hitzaldia egingo du Ekintza Da Salud elkarteak etzi, eguaztena, kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI |

#### • Posta elektronikoen inguruko ikastaroa

Outlook Express posta programa erabiltzen irakatsiko dute etzi, eguaztena, KZgunean, 16:30-18:30.

#### • Anaitze Batzordea lokalez aldatuko da laster

Anaitze batzordeak lokal berria izango du, eta jakinarazten du material guztia lekuz aldatu arte ezingo duela material gehiago jaso. Irail edo urri inguruan hasiko dira berriro materiala jasotzen.

ANTZUOLA |

#### • Batzarra deitu dute gizarte-kultura etxearen harira

Kokapena eta proiektua garatzeko izan den eztabaida faltarekin kezkatuta dagoen herritar talde batek deitu du: hilaren 8an, 19:00etan, udaletxean.

# Iritziak



## Isilpekoak

943 25 05 02  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Arrasateko Udal Azoka kaltetzeko arriskuan

"Arduratzekoa" dela dio irakurle batek Arrasateko azokaren etorkizuna. Saltzaileek eurek egindako adierazpenen harira, irakurle honek ere "kezkatuta eta haserre" dagoela adierazi digu. Udalak Biteriko aparkalekuen gainean ipini gura du azoka berria, baina saltzaileei euren etorkizunari buruz ez ei die ezer esan. Berrien arabera, lizentzia berrikoak soilik joango lirake kokaleku berrira, azoka erdibituz. Irakurle honek dio Udalak ez dituela babesten saltzaile txikiak eta uste du "horrela herriko bizitza hil egingo dutela".

### • Herri sarrerako biribilguneek ikuspen urria Oñatin

Oñatira Elorregitik (San Prudentzio) sartzeko egokitzen dabilzan biribilguneek da kexu irakurle bat. Herrira heldu baino lehen bi biribilgune apaindu dituzte, bat Zubillagan, igelen figurak dituena, eta bestea Ulmara jo baino lehen dagoena. Hark esaten duenez, "altuegiak dira biribilgune berriak eta ez da ikusten autorik badatorren". Azaldutakoaren arabera, "ezin ikusteak abiadura moteltzeko neurri moduan balio badezake ere, ikuspen urria arriskutsua ere izan daiteke".

### • Txaloak Errekaldeko herri eskolako gurasoei

"Jai polita" antolatuta zuten atzo Oñatin Euskal Eskola Publikoaren alde eta horren erantzukizuna eskolako gurasoek izan dute, eurek hartu dute eta guztia prestatzeko ardura. Irakurle batek lan boluntario hori txalotu gura izan du tarte honen bitartez, "jai giroa egun guztian zehar egon zelako eta antolakuntza bikaina izan zelako zentzu guztietan". Horregatik, zorian eman gura izan dizkie Errekaldeko guraso eta langileei, egindako ahaleginarengatik.

## Sarean harrapatuta

### Kantauriko antxoa arrantzatzea debekatu egin behar da?

Euskal arrantzaleek antxoa harrapatzea debeka dezatela eskatu diote Espainiako Gobernuari. Gobernuak dio Bruselak erabaki beharko duela hori azterketa tekniko gehiago egin eta gero, baina, debekatzeko-

tan, irailera arte ez dute debekatuko. Hasi dira frantziarrak Bizkaiko Golkoan arrantzan sare pelagikoekin, eta euskal arrantzaleak haserre daude. Gai horren gainean eztabaidatu dute *Goiena.net* webgunean.

### ANGULEN PARE JARRIKO DIRA ANTZOAK

Nik uste dut kontrol gehiago jarri beharko litzatekeela bai itsasoa eta baita portuan ere. Isunak gogortuz gero frantziarrek ez dute nahi adina antxoa harrapatuko. Antxoaren egungo egoera ere ikertu beharko dute eta horren arabera jokatu eta legeak egin. Horrela jarraituz gero bestela antxoa galdu egingo da. Galtzen ez bada ere, laster angulen parean jarriko dira antxoak ere.

Kontrola / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### SARE PELAGIKOAK DEBEKA DITZATELA

Antxoak bakarrik ez, beste arrantza denak ere kontrolatu behar dira. Sare pelagiko horiekin doazen arrantzaleek aurrean harrapatzen duten dena hartzen dute; berdin die handiak edo txikiak izan. Azterketa sakon bat egin beharko litzateke itsasoa dagoen arrain kopuruaren gainean eta horren arabera aukeratu ze arrantza mota den egokiena. Eta pelagikoena egokia ez bada debeka dezatela.

Debekatu / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### ORAIN DAUDEN LEGEAK GOGORTU BEHAR DIRA

Antxoaren gehiegizko harrapatetarako arazo biologiko konpone-

zinak ekarriko ditu. Hain zuzen ere, arazo biologikoaz kezkatu behar gara eta antxoaren desagertzeaz arduratu. Baina eztabaida hau politikoa bilakatu da. Frantziako eta Espainiako gobernuak ez dute ezer egin arazoa konpontzeko, elkarri pilota pasa besterik ez dute egin. Brusela ere berdin. Orain dauden legeak gogortu beharko lirake eta isun handiagoak jarri. Bestela antxoak urrearen pare jarriko dira eta askok lana galduko dute.

Politika / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### ARRANTZALEEK BADIOTE ZERBAIT EGONGO DA

Nik ondo ikusten dut antxoa harrapatzea debekatzeko. Azken finean esaten badute antxoa gutxi dagoela eta ugaltu egin behar duela, egia izango da. Arrantza-leen lana eta soldata dago jokoan eta hori esaten badute zerbaitegatik izango da.

Aitor / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### ARRAIN-HAZTEGIETAN UGALDUKO DIRA

Ez gara konturatzen baina antxoekin ez ezik beste espezie askorekin ere berdina egiten ari gara. Kala askorekin amaituko dugu eta konturatzen garenerako berandu izango da. Zergatik ez dituzte arrain-haztegiak hazten antxoak? Hala, espeziearekin amaitu beharrean zaindu eta ugaltu egingo ditugu.

Ekologista / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)


### EZIN DIRA GAUZAK HAIN AZKAR EGIN

Gauzak ez dira behin pentsatu eta di-da batean egin behar. Itxaron dezatela lehenengo zer dioten adituek eta gero ikusiko dute debekatu edo ez. Bi arrantzalek esan dutelako debekatzeko debekatu behar da? Gauzak hobeto aztertu behar dira lehenengo eta gero ikusi zer egin.

Aztertu / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## www.goiena.net

Kantauriko antxoa arrantzatzea debekatu egin beharko lukete?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunean

## Halaxe erantzun digute

Bidezkoa da erabiltzaileok kanonak ordaindu beharra Espainiako Autore eta Editoreen Elkarteari (SGAE)



UBANE UZIN |  
GAZTELUPEKO HOTSAK

Musikariei saltzen zaiena da SGAEen sartuz gero dirua jaso eta babestu egingo dituztela, baina hori ez da guztiz egia. Izugarri saldu behar da eskubideengatik kobratzeko, eta euskal taldeak oso txikiak dira. Autorea babesteko beste bide batzuk daude: jabetza intelektuala. Eta doan da.



ASIER ALTUNA |  
ZINEMAGILEA

Kanonetatik eta antzekoetatik jasotako dirutza ziur ez dakigu non geratzen den, SGAEen edo fabrikatzaileetan, baina argi dagoena da gaur egun kultura oso abandonatuta dagoela eta askok urte amaieran SGAEtik dirutxo hori jasoko ez bagenu kaskarra-ego gongo ginatekeela.



RUPER ORDORIKA |  
MUSIKARIA

Musika kontsumo produktu moduan ulertuta, SGAEren merkataritza ikuspegia logikoa da, zentzu horretan. Arazoa ez dago han, Internetekin erabat gaintu delako hori. Arazoa sortzen da kontsumitzaile moduan daukagun ikuspegiak kulturarako eskubidearekin talka egitean.



BEÑAT UNTZUETA |  
MUSIKHERRIA

Musikherria herri diskoetxetik autorearen presentzia bermatu eta materiala zabaltzeko beste alternatiba batzuen alde egiten dugu, *copyleft*-en bitartez. Kanonen kontuarekin lehendik ere SGAEk dirua ateratzen zuela suposatzen bada, orain gehiago egingo duela iruditzen zait.

## Egunkarietako harribitxiak

### HIESAK, 25 URTE

Gaur, astelehena, beteko dira 25 urte hiesaren hasiera ezagutzera eman zela. Denbora horretan 4.000 lagun infektatu dira Gipuzkoan, 1.532k gaixotasuna garatu dute eta 956 hil egin dira. Iaz, 47 infekzio berri detektatu ziren Gipuzkoan, duela bi urte baino bost gehiago. Hala eta guztiz ere, 2005. urtean zortzi lagun hil ziren HIESak jota.

'El Diario Vasco'  
2006-06-04



## Zorroztalea



## Estu-estu

*BBVA Fundazioak eta Iviek aurkeztutako azterketa demografikoaren arabera, Espainiako biztanleen %96 lurraldearen erdian biltzen dira eta mende batean 1.159 herri galdu dira Espainian. 1900. urtean 9.267 herri zeuden eta 2001ean, 8.108. Gainera, azken ehun urteetan hamaika probintziak biztanleak galdu dituzte. Teruel eta Soria dira biztanle gehien galdu dituztenak.*

'Perioditadigital.com' |  
2006-06-02

Estadistika-zaleontzat hainbat datu bitxi ematen digu hasieran aipatutako azterketa demografikoak. Harrigarria da, esaterako, Espainiako lau probintzian (Madril, Bartzelona, Valentzia eta Sevilla) biztanleria osoaren %34,7 bizi dela jakitea. Askoz harrigarriagoa, oraindik, biztanleen %40 lurraldearen %1ean bizi direla, estu-estu.

Desoreka hauek arazoak ekarriko dituztelakoan nago, baina ezer gutxi entzuten da honetaz. Penagarria oso Soria, Teruel, Palentzia edo Cuenca bezalako leku ederrak hutsik ikustea.

Euskal Herrian, hain txikia izanda, zailagoa horrelakorik gertatzea. Daturik tristeena, hala ere, desagertu diren herriena (mila baino gehiago ehun urtean). Eurekin batera, zenbat tradizio, ohitura, berba egiteko erak eta aberastasun kultural betiko galdua.

Juan Luis Azkarate

Ez daukat datu zehatzik, baina badirudi gero eta debagoiendar gehiagok bere jaioterritik alde egiten duela hiriburuetara eta kostaldera bizitzera, eta joera hau areagotu egingo da, seguru asko, autopista eta enparau guztiak bukatzen direnean. Kotxe-Autoarekiko mendekotasuna ere areagotu egingo da, gehienek hemen jarraituko baitute lanean.

Biztanleria kostaldean eta hiriburuetan biltzeko joera ez da berria, jakina, polis kontzeptua bera baino zaharragoa. Gertatzen dena gero eta bortitzagoa dela. Adibidez, esaten da Txinan 300 milioi nekazaritik gora desplazatzen ari dela euren jaioterritik ekialdeko kostaldeko megapolisetara. Sekulako exodorik handiena, omen.

**"Harrigarria da Madril, Bartzelona, Valentzia eta Sevillan probintziako biztanleria osoaren %34,7 bizi izatea"**

**"Askoz harrigarriagoa, oraindik, biztanleen %40 lurraldearen %1ean bizi direla jakitea, estu-estu"**

### ARROZA, BIZITZAREN ZEREALA

Bizitzaren zereala da arroza, munduko janaririk garrantzitsuen gizakiarendako; izan ere, hari zor diote bizirik irautea munduko biztanleen ia erdiak. Gehienak Asian bizi dira eta barneratzen dituzten kalorien %30 eta %80 bitartean arrozetik hartzen dituzte. Herrialde horietako asko arrozaren prozesuaren inguruan bizi da eta eskuz egiten dute lan guztia.

AEBetako nekazari batek, esaterako, 2.000 asiarrek egin dezaketen lana egiten du sega-makinarekin. Bestalde, arrozaren barietatea izugarria da: 140.000 mota ezberdin dagoela uste da eta horietatik 90.000 Arrozaren Banku Genetikoak jaso ditu aztertu eta garatzeko; izan ere, ehunka milioi pertsonarendako ezinbesteko janaria da arroza.

Gara  
2006-06-04



## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-VI-04

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Berria'

#### ELKARRIZKETA

"Gobernuak ETarekin hitz egin behar du, eta Espainiako gobernuburuak Kongresuan agerraldia egingo du elkarrizketaren hasieraren berri emateko. Bere asmoa da ahalik eta lasterren egitea. Bestetik, Euskadin alderdien arteko elkarrizketa hasi behar da. Denok parte hartuko dugun elkarrizketaren aldeko apustua egiten dugu".

Adolfo Ares  
2006-06-04

### 'Noticias de Gipuzkoa'

#### ELKARRIZKETA

"Batasunak badaki udal hauteskundeetara aurkeztuko dela eta zailtasunak kudeatzen ditu helburu batekin: Batasuneko buruak egoerari probetxu ateratzen ari dira, Euskal Herriaren askatasunen alde egiteagatik jazarpena jasaten duten pertsona gisa azalduz. Errentagarri zaie propaganda modu hori eta hauteskundeak arte erabiliko dute".

Josu Erkoreka  
2006-06-04

### 'Gara'

#### PROZESUA EUSKAL HERRIAN

"Aurreko astean une zaila igarotzen ari ginea esan genuen bezala, gaur esan dezakegu askoz hobeto gaudela, baina ez direla arriskuak bukatu. (...) PSEk onartu du ezker abertzalearen solaskidetzara, eztabaida politikoren beharra onartu du, baita datozen hilabeteetan eztabaida politikoa multilateral abiaraztea ere. Positiboa da hori".

Arnaldo Otegi  
2006-06-04

### 'El Diario Vasco'

#### ELKARRIZKETA

"Negoziaziorako lehenengo mahaia Espainiako Gobernuaren eta ETaren artean izango da eta gai asko izango ditu eztabaidatzeko: presoan etorkizuna, esaterako. Gogoratu Frantzian ETako 150 preso dardela. Espainian gauzak konpontzen badira, Frantzian ere gauzak konpontzeko prozesua eskatuko da".

François Maitia  
2006-06-04

# KIROLA

- Javier Iriarte Seguros Bilbaoko ziklistak irabazi zuen Mendekoste saria | 20
- Arrasate, Aramaio eta Arrazolako herri probetan bizkaitarrak nagusi | 19



Jokin Etxaniz,  
Irujo pilotariaren  
prestatzailearekin  
egin dugu berba  
finalaz | 21

## DEBAGOIENENKO V. TRIATLOIA




JOSETXO ARANTZABAL

Gorka Muxikak Aitor Alberdi utzi zion lehenengo postua.



JOSETXO ARANTZABAL

Inma Rafael 2:29:09ko denbora egin zuen helmugan.



JOSETXO ARANTZABAL

Debagoiendarren artean Ricardo de Goñi izan zen azkarrena.

### DEBAGOIENENKO TRIATLOIA | 220 TRIATLETAK EKIN ZIOTEN LASTERKETARI

# Pronostikoak hautsiz, Aitor Alberdi nagusi Arrasaten

*Hector Llanos gasteiztarrak azken hiru kilometroetan utzi behar izan zuen Arrasateko lasterketa*

*Antxintxika taldeko lehendakariak lore sorta jaso zuen Arrasateko triatloiaren alde egindako lanagatik*

Arantzazu Ezkibel

Aitor Alberdi, Garraitz kirol taldeko triatleta, nagusitu zen zapa-tuan Arrasaten jokatu zen V. triatloian, 2:08:49ko denbora egin da. Hector Llanos zen Arrasateko proba irabazteko faborito nagusia, baina azken kilometroetan lasterketa utzi behar izan

zuen gasteiztarrak, arazo batzuk tarteko.

#### URETAN LLANOS NAGUSI

Urkulun 1.500 metro egin zituzten igerian parte-hartzaileek. Eta uretatik Hector Llanos gasteiztarrak atera zen lehenengo. Boxetan bizikleta hartu eta 40 kilometroko ibilbideari ekin zioten

triatletek. Urkulutik jaitsi eta Epelera hartu zuten; han berriro ere behera egin eta saihebidia hartu zuten. Eta Takolo baserrian Aramaio aldera egin zuten.

Llanos iritsi zen lehenengo Arrasateko Laubide plazara. Bizikleta utzi eta azken 10 kilometroei korrika ekin zien gasteiztarrak. Atzetik, Aitor Alberdi eta Aimar Erostarbe zituen, minutu batera. Atletek hiru kilometroko hiru bira eman zituzten Arrasateko kaleetan. Hala, lehenengo itzu-

liaren ostean Hector Llanos pasatu zen lehenengo helmuga onditi, baina bigarren itzulirako Aitorrek aurre hartu zion; gasteiztarrak lasterketa utzi zuten.

Azkenean, Aitor Alberdi eta Gorka Muxika batera iritsi ziren helmugara, baina Gorkak Aitorri utzi zion lehenengo postuan helmuga gurutzatzen, lasterketa guztian egindako lanagatik.

#### HAMABI EMAKUME

Lehen emakumea Inma Rafael (2:29:09) izan zen. Guztira 12 emakume hartu zuten parte proban, baina helmugara 11 iritsi ziren. Bestalde, lehen debagoiendarra Bergarako Ricardo de Goñi (2:16:12) izan zen. Goizean Urkulun jokatuako gaztetxoaren proban, berriz, Josu Vallina lekeitiarra nagusitu zen (19:43) eta nesketan, Goizalde Onaindia.

### Emaitzak

#### LEHENENGOAK, GIZONAK

1. Aitor Alberdi	(2:08:49)
2. Gorka Muxika	(2:08:50)
3. Asier Lopez	(2:10:48)
4. Aimar Agirresarobe	(2:11:24)
5. Ibon Gabilondo	(2:11:49)
6. Aitor Tejeria	(2:12:47)
7. Etor Mendia	(2:13:47)
8. Ibon Oregi	(2:14:06)
9. Andoni Illarramendi	(2:14:06)
10. Aitor Galarraga	(2:15:26)

#### LEHENENGOAK, EMAKUMEAK

1. Inma Rafael	(2:29:09)
2. Maider Vallina	(2:31:52)
3. Itsaso Leunda	(2:32:34)
4. Itziar Zugasti	(2:35:37)
5. Amaia Ostolaza	(2:37:27)

#### LEHENENGOAK, DEBAGOIENDARRAK

13. Ricardo de Goñi	(2:16:12)
18. Aitor Sotil	(2:17:52)
26. Jose Ignacio Pelayo	(2:19:29)
37. Mikel Askobebeitia	(2:24:19)
39. Jose Jimenez	(2:24:51)
47. Raul Montiel	(2:26:04)
50. Iban Diaz	(2:26:53)
67. Felix Zugasti	(2:29:57)
71. Mikel Txasko	(2:30:52)
73. Jesus Cantero	(2:31:15)

**Atletek Arrasateko kaleetan egin zituzten azken hamar kilometroak**

DEBAGOIENENKO V. TRIATLOIA

• LASTERKETA IRUDITAN



**URKULUN 1.500 METRO IGERIAN.** Lasterketa arratsaldeko lauretan hasi zen, Urkulun. Triatletek igerian egin zituzten lasterketako lehenengo 1.500 metroak. Uretatik lehenengo Hector Llanos gasteiztarra atera zen. Aitor Alberdi bigarren onena izan zen igerian, 19:46ko denbora eginda. Inma Rafaelak 24:58 behar izan zuen.



**BIZIKLETAN.** Urkulun igerian egin eta gero bizikleta hartu zuten lasterkariak. 40 kilometro bizikleta gainean egin eta Arrasateko Laubide plazan bizikleta utzi, oinetakoak aldatu eta azken 10 kilometroak korrika egin zituzten lasterkariak. Parte-hartzaileek esan zigutenez, oso polita iruditu zitzaizen bizikletan egindako ibilbidea.




**MASAJE POSTUA.** Triatloia bukatu ostean, helmugan, masaje postua jarri zuten antolatzaileek. Behin triatloia bukatuta lasterkariak gustura hartu zituzten masajeak. Hala, jendeak ilaran itxaron zuen norberaren txanda. Inork ez zuen arazo handirik izan, baina hankako muskulu bikiekin-eta arazoak izan zituztenek ondo eskertu zuten masajea.



**PODIUMA.** Argazkian lasterketako hiru gizon eta hiru emakume azkarrenak ageri dira. Mutiletan, Aitor Alberdi, Gorka Muxika eta Asier Lopez izan ziren podiumera igo zirenak eta nesketan, Inma Rafael, Maider Vallina eta Itsaso Leunda. Antxintxika Triatloi Taldeak taldekako saria jaso zuen eta Ricardo de Goñik lehen debagoiendarraren saria.

• HONELA IKUSI ZUTEN PROBA PARTE-HARTZAILEEK




**AITOR ALBERDI |**  
LEHENENGO GIZONEZKOA

"Hector hemen dagoela zaila da irabaztea. Igeri bestetan baino hobeto egin dut. Bizikletan, azken mendatean ihes egin eta Hectorren atzetik ibili naiz. Korrika egitera lasai atera naiz. Eskerrak eman nahi dizkiot Gorkari: batera iritsi arren, errespetatu egin nau eta helmugara lehenengo sartzen utzi didalako".



**INMA RAFAEL |**  
LEHENENGO EMAKUMEZKOA

"Oso pozik nago; egia esan, ez nuen espero irabaztea. Azken momentuan erabaki dut Arrasatera etortzea. Lasterketa asko gustatu zait. Gogorra izan da, baina nik nahiago ditut ibilbide gogorrak. Bizikletan egin dugun tartea oso polita izan da eta azkeneko kilometroetan, Arrasateko kaleetan, giro bikaina egon da".



**JOSU VALLINA |**  
LEHENENGO GAZTEA

"Inoiz jokatu ditut beste triatloi proba batzuk, baina hau da Arrasaten parte hartzen dudako lehenengo aldia. Nire helburua ahal nuena egitea zen, ez naiz proba irabaztera etorri, baina azkenean ondo atera zait. Inguru polita da eta gustura etorri gara Lekeitio aldetik Urkulura egun-pasa egitera".



**RICARDO DE GOÑI |**  
LEHENENGO DEBAGOIENDARRA

"Hasieran oso ondo aritu naiz, baina bizikletan, azkeneko portuan, hanketako bolak igo zaizkit eta arazoak izan ditut. Hori dela-eta, korrika ere hiru aldiz gelditu beharra izan dut. Hori da Arrasateko Triatloian gogorrera egin zaidana. Hala ere, pozik nago lortutako postuarekin, lehenengo debagoiendarra izan naiz".

**I. BERGARA HIRIA SARIA****EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA** | 700 LAGUN INGURU HURBILDU ZIREN BERGARAKO CANDY-KO ZIRKUITURA

# Ehun gidarik hartu zuten parte moto-krosean

*Euskadiko Moto-Kros Txapelketari dagokion bigarren proba jokatu zen zapatuan Bergaran*

Mireia Bikuña

Urte askoan motor hotsak entzun gabe egon ondoren, zapatuan berriro ere gasolina usaina eta motor zarata izan ziren protagonistak Bergaran.

Motor-zale talde batek Arrasateko Moto Klub taldearen laguntzarekin antolatutako Bergara Hiria I. Saria puntuagarria zen Euskadiko Moto-Kros Txapelketarako. Motor gidarien jatorria askotarikoa zen: bizkaitarrak, arabarrak, kataluniarrak eta errioxarrak, besteak beste.

**BOST KATEGORIA**

Moto-kros txapelketa bi fasetan jokatu zen. Motorrak, aldiz, bost kategoriatan banatu ziren: alebina, gazte eta kadeteak, klasikoak, MX-1 eta MX-2.

Goizean, bost kategorietan parte hartzen zuten motorrek entrenamenduak egin zituzten. Motorrak berotze aldera Candy enpresa inguruan egokitutako zirkuituari hainbat buelta eman zizkieten. Eguerdia aldera, berriz, motor klasikoek lehenengo ekitaldia jokatu zuten. Gainontzeko kategorietako ekitaldiak eta finalak arratsaldean jokatu ziren.

**IKUSLE ASKO**

Eguraldiak lagunduta motor-zale asko hurbildu zen zapatuan Bergarako moto-kros txapelketa ikustera. "700 lagun inguru etorri dira txapelketa ikustera. Egia esan, oso pozik gaude lasterketak izan duen erantzunarekin eta gidariek lan bikaina egin dute", azpimarratu ziguten antolakuntza taldeak. Aurrera begira, moto-kros txapelketarekin jarraitzeko asmoa dutela adierazi ziguten, "baina zirkuitu iraunkorra aldarrikatzen dugu".

Moto-kros txapelketa hasi orduko ikusi zen zirkuitua oso lehorra zegoela. Motorrek hauts handia ateratzen zuten eta. Ibilbidea aldika ureztatu egin zuten. "Antolakuntza aldetik dugun pena bakarra hau da, zirkuitua oso lehorra dagoela. Aspaldian ez du euririk egin eta horrek kalte egin digu. Une oro ureztatu dugu ibil-

**100 lagunek parte hartu zuten moto-kros txapelketan**



JOSETXO ARANTZABAL

Hautsa izan zen moto-kros txapelketako protagonistetako bat; zirkuitua oso lehor zegoen.

bidea, baina berehala lehortzen zen. Ondorioz, hauts handia egon da", aipatu zigun antolakuntza taldeko Kote Mentxakak.

**Eguraldiak lagun, motor-zale asko hurbildu ziren lasterketa ikustera**

Bada, hauts arazoa alde batera utzita, txapelketa normaltasunez jokatu zen. Zirkuituak bihurtu asko zituen eta jaitsiera gogorak ere bai. Hala, salto ikusgarriez gozatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

Azkeneko sailkapena osatzeko, bi ekitaldietan gidari bakoitzak lortutako puntuak batu ziren.

Kategoria bakoitzeko finalak bukatu ondoren sari banaketa ekitaldia egin zen. Alebin maila-

ko gidari guztiei dominak banatu zizkieten. Gainontzeko mailatan, lehenengo hiru sailkatuek garaikurrak eta diru-sariak jaso zituzten.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Hain zuzen, Bergaran jokatuutako txapelketa Euskadiko Txapelketarako 2. proba puntuagarria zen. Euskadiko Txapelketako hurrengo proba Astrabuduan (Bizkaia) jokatu da, ekainaren 10ean.

**• HORRELA IKUSI ZUTEN PROBA PARTE-HARTZAILEEK ETA IKUSLEEK****MIKEL** | GASTEIZ

Kadete mailako lasterketa amaitu ondoren hitz egin genuen Mikelekin. "Zirkuitua asko gustatu zait. 10. tokian amaitu dut", esan zigun. "2 urte zituenetik dabil motor gainean", aitortu zigun Mikelen aitak.

**ANDER ETA IKER** | ARRIGORRIAGA ETA CASTRO

Motorra gustuko dutenek lasterketetan parte hartzeko edonora joaten diren adibide garbia dira argazkiko bi mutikoak. "Guri motorrak gidatzea gustatzen zaigu eta ez dugu arazorik izaten, gurasoen laguntzarekin, lasterketak jokatzen diren edozein lekutara joateko. Ia asteburu guztietan zirkuituren batera joaten gara", azaldu ziguten motor gainean jarri aurretik. Ondoren, lasterketan ondo baino hobeto aritu ziren motor gainean.

**LEANDRO** | AZPEITIA

1980. urteko motor batekin parte hartu zuen Leandrok. "Husqvarna modeloko motorra da. Zaharregia, agian, zirkuituak dituen salto hauetarako", azpimarratu zigun. Motor harekin klasikoan mailan aritu zen.

**IBAN** | ALONSOTEGI

MX-1 kategorian parte hartu zuen Ibanek, baina ez zuen lasterketa amaitu. "Egia esan, ez naiz askorik entrenatu. Eta entrenamenduak beharrezkoak dira. Besoak oso nekatuta nituen eta ez dut lasterketa amaitu", esan zigun.



**I. BERGARA HIRIA SARIA**



Alebin mailako irabazleek pozik hartu zituzten sariak.



Salto ederrak egiteko aukera paregabea izan zuten parte hartzaileek.



Aldapa behera motorra bikain menderatu zuten gidariek.



Gurpilekin arazoak izanez gero, tailerra ere gertu zegoen zapatuan.



**IGONE, NAIA, ARITZ, GARI, JOXELI, ITXASO ETA MAIDER | MUNGIA**

Lagun giroan etorri ziren argazkiko lagunak zapatuan Bergarara. Gariren lehen lasterketa ikustera hurbildu ziren. "Moto-kros lasterketa baten parte hartzen dudan lehen aldia da. MX1 kategorian parte hartuko dut. Gogor entrenatu dut gaurko zitarako. Gaur goizeko entrenamenduetan zirkuitua asko gustatu zait" azaldu zigun Garik. Haren lana ikustera hurbildu ziren lagunak kexu ziren sarre-rako prezioarekin, "oso garestia iruditu zaigu", aitortu ziguten.



**OIER ETA JON BEÑAT | DONOSTIA**

Zortzi urteko bi lehengusu hauek gurasoen laguntzarekin etorri ziren Donostiatik. Alebin mailan parte hartu zuten. "Oso gustura gaude", azaldu ziguten Oier eta Jon Beñatek. "Oraindik gazteak dira. Hau da txapelketetan parte hartzen duten lehenengo urtea. Baina motorra gustatzen zaie eta aurrera jarraituko dutela uste dugu" azaldu zigun Oierren aitak. Oierrek eta Jon Beñatek domina bana jaso zuten lasterketa amaieran.

**Sailkapena**

**KLASIKOAK**

1. Jauma Llop
2. Leandro Galdona
3. Marcos Zaldua
4. Juan Carlos Altzuri
5. Guillen de Pallega
6. Alfonso Bustillo

**ALEBINAK**

1. Alejandro Serrano
2. Julen Uterga
3. Asier Gartzia
4. Iker Uterga
5. Oier Argomaniz
6. Alain Peña
7. Yera Zuazabal
8. Ekaitz Alfonso
9. Josu Alibizua
10. Ander Mendarte

**KADETE ETA GAZTEAK**

1. Francisco Aguila
2. Aimar Marcilla
3. Aritz Marcilla
4. Josu Mentxaka
5. Asier Barandiaran
6. Borja Altzuri
7. Suan Iturralde
8. Gara Falconet
9. Hodei Blanco
10. Mikel Telleria

**SENIORRAK (MX1)**

1. Heber Garmendia
2. Rogers Carrasco
3. Jon Mujika
4. Ibai Merketegi
5. Imanol Zalacain
6. Jokin Barandiaran
7. Aitor Osoro
8. Manuel Telletxea
9. Victor Manuel Andres
10. Txema Duran

**SENIORRAK (MX2)**

1. Iker Lujanbio
2. Oscar Gonzalez
3. Eduardo Gonzalez
4. Koldo Vigiola
5. Iñaki Mujika
6. Unai Güembe
7. Roberto Fernandez
8. Jabier Urkijo
9. Jose M<sup>a</sup> Mendez
10. Ivan Abajo

VIII. ARRASATEKO ERRUGBI TXAPELKETA | BEDERATZI TALDE ARITU ZIREN LEHIAN



Etxeko taldeak azken postuan amaitu zuen txapelketa.

ARANTZAZU EZKIBEL

## Bera Bera nagusitu zen Arrasateko errugbi festan

*Zapatu arratsaldean Atxabalpen hasi zen jaiak iluntzean plazako karpan izan zuen jarraipena*

Arantzazu Ezkibel

Bera Bera nagusitu zen Arrasateko errugbi txapelketan. Bederatzi talde aritu ziren txapelketan: Bera Bera, BEC (Bordele), Elorrio, Ordizia, Zarautz, Hernani, Eibar, Atco, San Sebastian eta Arrasate Rugby taldea.

### BI FASEKO TXAPELKETA

Txapelketak bi fase izan zituen. Lehenengoan, talde guztiak elkarren aurka lehiatu ziren. Partidu

bakoitzak zazpi minutuko bi zati izan zituen. Norgehiagoka horiek zelai erdia erabiliz jokatu ziren; horrela, Atxabalpeko futbol zelaian bi partidu batera jokatzeo aukera egon zen.


Bigarren fasean, finalerdia eta finalak jokatu ziren. Elorriok eta BECek 3-4 egin zuten; BEC iritsi zen finalera. Beste finalerdian arazoak izan ziren. Ordiziak partidua irabazi zuen, baina epailek txapelketatik at utzi zuten, Goierriko taldeak bereak ez ziren bi jokalarirekin jokatzeagatik.

Finala, beraz, Bera Berak eta BECek jokatu zuten. Donostiako taldea 5-4 nagusitu zitzaion Bordelekoari, eta Arrasateko txapelketa eskuratu zuen.

Bigarren faseko partiduok zelai osoan jokatu ziren eta lehenengokoak baino ikusgarriagoak izan ziren. "Jokalarientzat gogorragoa da zelaian luzetara jokatzea, baina jokoaren mugimenduak hobeto ikusten dira horrela", adierazi zigun antolatzaile batek.

Azkenik, aipatu behar da Arrasate Rugby taldekoak gustura geratu zirela txapelketak izandako erantzunarekin. "Garrantzitsuenak denak elkarrekin elkartu eta giro ona sortzea da", esan ziguten antolatzaileek. Arrasateko plazan segitu zuen festak.

### • IKUSLEAK GUSTURA JAIAREKIN



IKER ETA EÑAUT | ARRASATE

### "Orain errugbia ikustera etorri gara eta gero Arrasateko plazan jaiarekin jarraitzeko asmoa dugu"

"Urtero etortzen gara Atxabalpera Arrasate Rugby Taldeak antolatzen duen errugbi txapelketa ikustera. Asko gustatzen zaigun jaia da Arrasaten jokatzeko dena. Baina ez gara partiduetara bakarrik etortzen. Egunez eta gauzez jarraitzen dugun jaia da hau. Hemendik Arrasateko plazan dagoen karpaz jaitziko gara festarekin jarraitzeko asmoz. Lehen errugbyan jokatuak gara, baina orain alde batera utzia dugun kirola da."



NAGORE, MAIALEN ETA IZASKUN | ARRASATE ETA ANDOAIN

### "Iaz ere izan ginen Arrasate Rugby taldeak antolatzen duen txapelketan; giroa oso ona izan zen"

"Bigarren aldia da hona etortzen garena eta asko gustatzen zaigun jaia da Arrasatekoa. Iaz ere izan ginen Arrasateko taldeak antolatzen duen errugbi txapelketan eta oso ondo pasatu genuen. Kirolaz gain kaleko giro ere oso ona izan zen. Errugbia ikusteko ohitura dugu, eta atsegin dugun kirola da. Gero, hemendik ateratzen garenean, Arrasateko plazara jaitziko gara, nolako giroa dagoen ikustera eta jaiarekin jarraitzera."

### • ARRASATEKO PLAZAN JARRI ZUTEN KARPAN GARAGARDOA, TXERRIKIA ETA SARI BANAKETA EGON ZEN



**SARI BANAKETA.** Bera Berak eraman zuen txapelketako sari nagusia. Talde donostiarrak 5-4 irabazi zuen finala Bordeleko BECen aurka. Hirugarren postua Elorrioko taldearentzat izan zen eta laugarrena Ordiziarentzat. Jokalari onenaren saria Bera Bera taldeko Zigor Lekarozek eraman zuen. Arrasateko taldeko jokalaririk onenak ere bere saritoxoa izan zuen Arrasateko txapelketan: saria Joseba Zabaletari egokitu zitzaion.



**GARAGARDOA ETA TXERRIKIA.** Arrasateko plazan egokitutako karpan garagardoa eta txerrikiak dastatzeko aukera izan zen egubakoitz arratsaldean eta zapatu arratsaldean. Sei garagardo marka ezberdin egon ziren aukeran; besteak beste, Paulaner, Guinness eta Murphy's. Guztira 1.500 litro garagardo edan zen aste bukaeran. Txerrikiari dagokionez, zapatu gauean txerri-ukondo gutzia amaitu egin zen.

HERRI PROBAK | 70 LAGUNEK PARTE HARTU ZUTEN HERRI PROBAN

# Besaideren 'jabetza' izango du Atxondok, herri probak irabazita

*Bosgarren urtez jokatu zen Arrasate, Aramaio eta Atxondoren arteko txapelketa berezia. Zapatuan izan zen, Aramaion, eta giro ezin hobea egon zen hiru taldeetako kideen artean*

Mireia Bikuña

Orain dela bost urte, Arrasateko eta Arrazolako zenbait lagunak artean bi herrion arteko nola-baiteko *piketa* antolatzea erabaki zuten. Irabazleak Besaideren *jabetza* lortuko zuen urtebetez. Baina kontuan hartuta Besaide ez dela bakarrik Arrasate eta Arrazolarena, Aramaio txapelketan parte hartuzera gonbidatu zuten. 2004an hartu zuen parte lehen aldiz Aramaio taldeak.

## BOSGARREN EDIZIOA

Urte urte aldaketaren bat egoten bada ere, lehen proba beti berdina izaten da: goizeko zortzietan korrika saioa egin zuten. Eta haren ondoren etorri ziren gainerako proba guztiak.

Pilota partiduetan Arrasateko taldea izan zen onena. Finala haiek irabazi zuten. Aizkorarekin enborra moztu beharra izan zuten. Talde bakoitzeko bi lagun aritu ziren, eta proba hartan ere Arrasate izan zen nagusi.

Txorokil-batzea, harri-tiratzea, aulkien jokoa eta sagarraren jokoak ere egin zituzten. Azken

hartan, konketa batean zeuden sagarrak ahoarekin hartu eta taldekidearekin lasterketak egin behar izan zituzten.

## GIRO BIKAINA

Hiru koadrila bateratzen diren horrelako probak antolatzeko, jai giroa paregabea izaten da, eta zapatuan ere horrela gertatu zen. Proba guztiak giro ezin hobean egin zituzten.

Arrasate, Aramaio eta Atxondoko taldeetan guztira 40 lagun lehiatu ziren. Baina dena 70eko lagun taldea osatu zen.

Herri probak bukatu ondoren Atxondo izan zen irabazlea. Iaz Aramaio izan zuen *jabetza* izango du urtebetez. Arrasate sailkatu zen bigarren tokian eta Aramaio, hirugarren. Sariak ere banatu zituzten.

Hala, beroak eragindako egarria garagardoarekin asebeten ondoren, bazkari bikaina egin zuten herri probetan parte hartutako guztiak, eta datorren urteko herri probaren nondik norakoak aztertzen hasi ziren.

**Arrasate, Aramaio eta Atxondoko 70 lagun lehiatu ziren herri probetan**

**Txapelketa amaitu eta gero, bazkari mundiala egin zuten parte-hartzaileek**



Idiek egiten duten lana gizonek egin zuten zapatuan.

XABIER URTZELAI



Aulkien jokoa, umeen pare aritu ziren.

XABIER URTZELAI



Beroari aurre egiteko, garagardoa beti eskura.

XABIER URTZELAI

## Txirrindularitza

# Orbea taldeko Aaron Villegasek irabazi zuen Gatzagako proba

Arantzazu Ezkibel

Orbea taldeko Aaron Villegasek irabazi zuen egubakoitzean Leintz Gatzagan amaitu zen Euskal Bizikletako hirugarren etapa. Izan ere, asteburuan tropel profesionala gurean izan da.

Jende gehien bildu zuena egubakoitza izan zen. Gatzagako gainean izan zuen etaparen amaiera (Venta Fria) eta jende asko hurbildu zen hara. 100 kilometro egin zituen Orbeako txirrindulariak ihes eginda. Helmugarako 14 kilo-

metro falta zirela 2:39ko aldean zuten atzetik zetozen taldearekin, baina bost kilometroren faltan alde hori 1:23ra jaitsi zen. Bi kilometro falta zirela taldetik ihes egin zuen Koldo Gil liderrak. Helmugarako 150 metro geratzen zirela, liderrak Aaron Villegas harapatu zuen, baina, azkenean, bihotz oneko txirrindularia dela erakutsita, etapa garaipena Aaroni utzi zion Koldok.

Atzo bukatu zen Euskal Bizikleta eta Koldo Gil Nafarre izan zuen garailea.



Egubakoitzean iritsi zen tropel profesionala ibarrera. Zapatuan Gatzagatik Agurainera egin zuten txirrindulariek.

JOSETXO ARANTZABAL

# Iruditan



**Bergaran eskola kiroleko sari banaketa.** 200 haur inguru elkartu ziren eguen arratsaldean Bergarako pilota-

lekuan eskola kiroleko azken jaietan. Arratsaldeko 5etan herri kirolean jardun zuten benjamin eta alebin mailako neska-mutikoei eta 7etan sari banaketa izan zen. Opari mordo batatu zituzten parte-hartzaileen artean.

letako neska-mutikoei eta 7etan sari banaketa izan zen. Opari mordo batatu zituzten parte-hartzaileen artean.

ARANTZAZU EZKIBEL



**Monte tabernan Giroko porra sariak.** 6.132 euro eraman ditu Giroko porra irabazleak, Arrasateko Rocky Marciano-k. 511 lagunek hartu dute parte porran eta guztira hamar lagunek jaso dute saria. Bigarrenak 3.832,5 euro irabazi ditu, hirugarrenak 1.916,25 euro eta beste guztiek 383,25 euro.

JON BEZIBAR



**Pentekoste txirrindulari saria.** Seguros Bilbao taldeko Francisco Javier Iriartek (2:48:42) irabazi zuen atzo, domeka, Bergaran. Unai Arantzabal (Azpiru Inmobiliaria) izan zen aurreneko bergararra helmugan.

JOSETXO ARANTZABAL

## Labur

### Espainiako gazte txapelketan ibarreko bi ordezkari izan dira

Jon Ander Amado arrasatearra eta Sergio Garcia oñatiarra Euskadiko selekzioarekin izan dira Caceresen jokatu den gazteen Espainiako txapelketan.

Jon Anderrek 200 metroko proban parte hartu zuen eta bosgarren sailkatu zen 23 segundo eta 20 ehuneko markarekin. Denbora honekin Uztailean Ourensean jokatu den Espainiako txapelketarako txartela eskuratu du. Sergiok, 5.000 metroko proba egin zuen eta 8. postuan sailkatu zen Oñatiko atleta.



SONIA TRIGUERO

Psikologoa / Psikoterapeuta

Edozein kontsulta egiteko:  
Zuzendu Estetika eta  
Errehabilitazio Zentroa.  
Tel.: 943 72 52 62  
Poltsikoko tel.: 616 31 84 24

Jokinek egun handia bizi izan zuen atzo: Juan Martinez de Irujoren prestatzailea da Bergarakoa, eta atzo buruz buruko final handia irabazi zion Iberokoak Olaizola II.ari.

Aspe enpresan ari da lanean Etxaniz, pilota profesionala utzi zuenetik. 15 urte eman ditu Jokinek frontoian eta oraingo lana gogoko duen arren, pilotalekuan jokatzen

aritzea nahiago duela esan digu. Orain, Bergarako Mendekoste jaiak direla aprobetxatuta, Juanek lortutako txapela ospatzea egokitzen zaio Jokini. Zorionak!

JOKIN ETXANIZ | ASPE-KO ENTRENATZAILEA

## "Juanek jartzen duen erritmoari eustea ez da erraza; kastako pilotaria dela erakutsi du"

Arantzazu Ezkibel

**Buruz buruko txapelketa irabaztea denboraldia borobiltzeko modu bikaina izan da.**

Bai. Binakako txapelketa hasi zenetik kritika asko jaso ditu Juanek. Azkenean, bai binakako txapelketa eta bai buruz buruko irabaztea lortu du.

**Nolako finala izan dela iruditu zaizu?**

Nire ustez, oso partidu gogorra izan da. Huts batzuk egon dira, baina hori normala da. Nik uste dut biak ondo egon direla. Azkenean ikusi da Juanek zer-nolako kasta duen; izan ere, Juanek sartzen duen erritmoari eustea ez da erraza.

Bi pilotaria horiek, momentu honetan, beste pilotariak baino maila altuagoan daude.

**Nola prestatu duzue buruz buruko final handia?**

Garrantzitsuenak hasierako entrenamenduak izaten dira. Binakako txapelketa bukatu ostean banakako entrenamenduetan hastea gogorra egin zitzaigun. Eskuko arazo batzuk tarteko, hasierako entrenamenduak ez ziren oso onak izan. Pixkanaka maila hartzen joan da eta finalera ondo iritsi dela esan daiteke.

**Aimarren partiduak bideoan ikusi dituzue?**

Partidu aurretik ez dugu bideo-rik ikusi, baina badakigu nola jokatzen duen Aimarrek. Baita

zer egiteko gai den ere. Buruz burukoan ez dago sekreturik. Garrantzitsuena hasieratik sarea ondo egitea da eta jokaldietan aurre hartzea.

**Juanek irakurtzen al du prentsan berari buruz idazten dena? Zerbateko garrantzia ematen dio?**

Bai, normalean irakurtzen ditu egunkariak, eta esaten denaz jabetuta egoten da.

3 urte daramatza profesionalan eta urtero iritsi da bai binakako finalera eta bai buruz buruko finalera. Baina, hala ere, beskeen esanak ez zaizkio burura igo. Albisteak onak direnean samu-

rrago irakurtzen ditu eta txarrak direnean zailagoa egiten zaio, guztioi bezala.

**Izaera handiko mutila dirudi Juanek; tirabira asko izaten dituzue entrenamenduetan?**

Bai, batzuetan bai. Entrenamenduetan gauzak ondo ateratzea gustatzen zaio eta ez bazaizkio gura bezala ateratzen haserretu egiten da. Baina hori positiboa dela uste dut, gogoarekin dagoela esan nahi du horrek. Entrenamenduak serio hartzen dituen seinalea da.


Kantxatik kanpo lasaiagoa da, baina jokoan izaera handiko pilotaria da Juan, irabazle sena du. Batzuetan berotu egiten da, baina orain arte lortutakoa izaera horri esker lortu du.

**Zertan bereizi da Olaizola II.aren eta Irujoren jokoak?**

Kanpotik ikusita Aimarrek lasaiago jokatzen du. Juanek, ordea, tanto guztietan bukaera arte egiten du borroka, esfortzu handiagoa egiten duela ematen du. Ezaugarri aldetik, biak oso pilotari onak dira.

Pilotei dagokienez, Juanek 105,3 eta 105,1ekoak erabili ditu eta Aimarrek 104,7 eta 102,7koak.


**Orain ospatzea egokituko da.**  
Bai, Iruñean ospatuko dugu. Juanek ohitura du Iruñera joateko familiarekin ospatzera. Eta ni ere hara joango naiz, nahiz eta herriko jaiak izan. Momentu polita izango da Juanekin egotea.



ARTXIBOA

Jokin Etxaniz Iruñean izan zen atzo, Irujoren garaipena ospatzen.

### • DEBAGOIENKO PILOTA-ZALEEK HONELA IKUSI DUTE FINALA



JOSE MARI ZEZEAGA | PILOTARIA

"Finala gogorra izan da, ezin zaio gehiago eskatu buruz buruko final bati. Orokorrean, Irujok pixka bat gehiago dela erakutsi du. Esan daiteke batez ere fisikoki dagoela Irujo Aimarren gainetik. Kolpea ere bizkorragoa du Juanek. Defentsan duen kolpea ia erasoko kolpea da. Iberokoa txapelkun justua dela uste dut".



XABIER UBERA | PILOTARIA

"Partidua gogorra izan da hasieratik, gustatu zait. Nik bi pilotariak ondo ikusi ditut, batez ere defentsan. Defentsa egitetik eraso egitera pasatzen diren pilotaria dira biak. Gaur egun, bai Aimar eta bai Juan beste pilotari guztiak baino maila altuagoan daude, baina bietatik gehiago nor den esaten ez naiz ausartzen".



REYES AZKOITIA | BERGARAKO PILOTA ELKARTEA

"Orokorrean partidu txarra iruditu zait. Emaitzarekin gustura geratu naiz, Irujoren alde nengoen-eta. Pilotarietako detailak onak izan dituzte, baina baita akatsak ere. Nire ustez, gaur egun Irujo Aimar baino gehiago da buruz burukoan; horregatik akats batzuk egin arren, partidua irabazteko gai izan da gaur".



FELIX AGIRRE | ANTZUOLAKO OLALDE PILOTA ELKARTEA

"Final klasikoa ikusi dugu. Tentsio askoko eta urduritasun askoko partidua izan da. Joko aldetik erritmo handia egon da eta ez da erraza erritmo horrekin ondo jokatzea. Irujo txapelkun justua dela iruditu zait. Gaur egun, Irujo Aimar baino gehiago dela uste dut. Ez dute alde handirik baina Irujo gehiago da".

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Euskalkien gaineko 'on-line' liburutegia argitaratu du Badihardugu elkarteak | 27
- Gay, lesbiana eta transexualen gaineko zimena zikloa ekainean barrena Arrasaten | 27

Sexy Sexters taldeak Arrasateko gaztetxea sutan ipini zapatuan | 25

**ANTZUOLAKO ONDAREA BERRESKURATZEN**



JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Ramirez de Okariz eta Jose Mari Iturbe liburuak aurkeztu aurretik. Hirugarren egileak, Jose Luis Santamaria maristak, ezin izan zuen ekitaldira joan.

**LIBURU AURKEZPENA** | GARI-BATZEA, TRENAK ETA MARISTEK HERRIAN IZANDAKO ERAGINA BATU DUTE LIBURU BANATAN

## Antzuolako ondarea berreskuratzeko bidean, hiru liburu aurkeztu dituzte

*'Antzuolako Liburutegia' bildumako lehenengo hiru liburuak dira. Iñigo Ramirez de Okariz, Jose Mari Iturbe eta Jose Luis Santamaria dira egileak. Barikuan aurkeztu zituzten*

Monika Belastegi

*Lurretik mahaira, Antzuolako tren* eta *Maristak Antzuolan* izenburuak dituzte Antzuolako Udalak kaleratu berri dituen hiru liburuak, eta herrian eragin nabarmena izan duten hiru gai jorratzen dituzte: gari-batzea, tren eta maristak, hurrenez hurren.

Barikuan aurkeztu zituzten liburuok, Olanan etxean, eta ekitaldian parte hartu zuten egileetako bik, Iñigo Ramirez de Okarizek –hiru liburuen egilea da– eta Jose Mari Iturbek –*Lurretik mahaira* liburuaren egile Okarizekin batera– eta Jose Angel Zabalo Antzuolako alkateak. Hirugarren egileak, Jose Luis

Santamaria marista eta dokumentalistak, ezin izan zuen ekitaldira joan –*Maristak Antzuolan* liburuaren egilea Okarizekin batera–.

Zabalo alkateak hartu zuen hitza lehendabizi, eta eskerrak eman zizkien egileei "musu-truk egindako lan guztiarengatik". Horrekin batera, liburuak gorde-tzen duten altxorra nabarmendu zuen: "Mardulak ez izan arren, daukaten mamia handia da", esan zuen. Izan ere, herriko kultura ondarearen zatitxo bana batzen dute liburuak, "batu ezean galdu egingo zirenak". Jose Mari Iturbek *Lurretik mahaira* gari-batzearen gaineko liburuaz berba egitean horixe aipatu zuen: "Halako lanak eginda konturatzen gara

lehengoaz zenbat galdu dugun eta zenbat galtzen ari garen", eta, umorez, gehitu zuen: "Orain, garia erein nahi duenak liburuan ditu horretarako instrukzioak".

**Herritarrak bildumarako ikerketak egitera animatzen dituzte**

**Liburutegian, udaletxean eta Itzar dendan daude salgai, batera zein solte**

**'ANTZUOLAKO LIBURUTEGIA' BILDUMA BERRIA**

Antzuolako Udalak herriko ondareekin lotuta orain arte kaleratu dituen liburuak Antzuola Herria Ikerketa Bekaren barruan izan dira. "Mardul, serio eta oso zientifikoak", Iñigo Ramirez de Okarizen esanetan, eta "denbora eta diru aldetik kostu handikoak". Bestalde, "badira herrian hainbat gai, askoz era sinpleagoan eta errazagoan azter eta aurkez daitezkeenak". Hori horrela, halako liburuak batuko dituen *Antzuolako liburutegia* izeneko bilduma sortu dute eta barikuan aurkeztutako hirurak dira bildumako lehenengoak. Bilduman kondentsatuko dira "antzuolarren izaera, usadioak eta ohiturak".

ANTZUOLAKO ONDAREA BERRESKURATZEN

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ | LIBURUEN EGILEA

“Herritarrak gonbidatzen ditugu halako ikerketak edo proposamenak egitera”

M.B.

**Barikuan aurkeztutako liburuen egilea -aurrez beste batzuk argitaratutako ere bada- eta Antzuolako Liburutegia bildumaren bultzatzailea da Iñigo. Ondarearen garrantziaz mintzatu zaigu.**



JOSETXO ARANTZABAL

**Antzuolaz gehien dakien herritarra zaitugu?**

Ez dakit zer den hori. Jakintza hitza nahiko errebeldea da: gauza bat da ondarearen gainean jakitea eta beste bat herriko beste gauza askoren gainean jakintza izatea.

**Ondareaz ari gara, baina.**

Banabil hainbat urtean ondarearen gainean lan egiten eta, gainera, ikusten dut une klabean gaudela. Hau da, gaur egungo garaia oso azkar doaz eta iruditzen zait lehengoarekin oso erraz apurtzen dugula. Bestalde, lehengo asko hiltzen ari dira eta pertsona nagusi bat hiltzen denean liburutegi handi bat galtzen da. Horregatik, hori gal ez dadin, helburua da ahalik eta azkarren, berandu izan baino lehen, gure ondare kulturala berreskuratzea. Horixe da bildumaren helburua, eta helarazi nahi dugun mezua ere bai.

**Zertan lagun diezaioke lehengoak orainari?**

Nork bere herriaren izaerarekin identifikatzen lagun dezake, eta norberaren herritartasun hori, galtzen ari garen herri-min hori berpizten. Lehen esan bezala, gizartea gero eta azkarrago doa, globalagoa da, indibidualagoa eta bakartiagoa. Hala, gure aldetik nahi duguna da herritartasun hori ez dadila galdu eta ahalik eta gehien bultzatzea herri izaera, kultura eta dinamika.

**Bildumarekin nahi dituzue herriko kultura, ohiturak, usadioak... batu.**

Bai, Antzuolako ondare kulturalarekin egindako bilduma izango da eta hor kondentsatuko lirake guk dauzkagun izaera, usadioak eta ohiturak. Aurkeztutako hirurak, gainera, irakurterrazak dira, arratsalde batean irakurtzen diren horietakoak. Eta saiatu gara teknizismo gutxi erabiltzen, gauza zehatzetara jotzen, herritarrak izan daitezen.

**Herritarrak animatu nahi dituzue halako lanak egitera.**

Bai, gonbidatzen ditugu herritarrak halako ikerketak egitera eta gaiak proposatzera; izan ere, ez da izan behar dokumentalista, historialaria... hala-koak egiteko.

**Maiztasun jakin batekin emango dituzue argitara?**

Asmoa da urtean bat edo argitaratzea, baina ikusiko dugu.

• 'ANTZUOLAKO LIBURUTEGIA' BILDUMAKO LEHENENGO HIRU LIBURUAK

**'LURRETIK MAHAIRA'**

Iñigo Ramirez de Okariz eta Jose Mari Iturbe dira egileak. Duela hiru urte herrian egindako gari-jotzearen gaineko erakustaldia izan da liburua egiteko eragilea. Hori koloreko-gariaren kolorea- 58 orrialdetan barrena, gariaren historia, prozesua, haren inguruan sortu izan diren baserriko bizibide, ohitura eta askotariko harremanak eta hiztegitxoak jasotzen ditu liburuak, besteak beste. Hori guztia hainbat argazki lagunduta dator. Egileek esan bezala, liburua irakurterraz eta aberasgarria da. Prezioa: 5 euro da (hirurak erosiz gero 15, guztira).




**'ANTZUOLAKO TRENA'**

Iñigo Ramirez de Okariz da egilea. Lan hori egiteko eragilea Azkoitiko Tren Museoko zuzendari Juanjo Olaizola izan zela azaldu du egileak. Kolore gorrixkako-burdinaren kolorea sinbolizatzen du- 105 orrialdetan barrena trenak herrian izandako eragina jaso du. Lana egiteko orduan trenaren gainean dokumentazio gutxi dagoela azaldu du Ramirezek, FEVEk galdu egin zuelako bere garaian. Zorionez, oraindik ere bazituen hainbat argazki eta antzularrek gordeta zituzten argazki, dokumentu, bitxikeria eta testigantzekin osatu ahal izan du lana. Prezioa: 10 euro da (hirurak erosiz gero 15, guztira).

**'MARISTAK ANTZUOLAN'**

Jose Luis Santamaria marista eta dokumentalista eta Iñigo Ramirez de Okariz dira egileak. Urdin kolorekoa egin dute liburua, maristen kolorea. 60 orrialdetan barrena maristek Antzuolan izandako eragina jaso dute, hainbat argazkiarekin lagunduta. 1908. urtean iritsi eta 1974. urtean Antzuolatik joan zirenera arteko ibilbidea jaso dute liburuan. 66 urte eman zuten maristek herrian eta liburuan jaso duten moduan, "horrek arrastoa lagatzen du". Prezioa: 10 euro da (hirurak erosiz gero 15, guztira).



“Denborak oso azkar doaz eta uste dut lehengoarekin oso erraz apurtzen dugula”

“Bilduman kondentsatuko dira gure izaera, usadioak eta ohiturak”

Aretz

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA



MUSIKA | KING DIAMOND BERGARAKO JAM ARETOAN

# Danimarkako iluntasunaren printzeak ez du Shakespearenaren antz handirik

*Jendetza batu zen Jamen danimarkarraren kontzerturako. Harritu egin zituen entzuleak eta sasoi betean dagoela erakutsi*

Gaizka Vitoria

Maiz, talde mitikoak datozenean, hasi baino lehenagotik, badakite dituzten abestiek ezin dutela hutsik egin. Baina askotan euren presentzia da azkenean geratzen zaizuna, ez direlako forma onenean egoten.

Zapatukoa guztiz kontrakoa izan zen...Benetan goxatu ederra hartu genuen han geunden guztiok. Heavy metal gaua izan zen. Sartu eta harritu egin ninduen Jam aretoa hain beteta egoteak, hala ere King Diamond aurrez etortzeke zegoen. Kontzertu aurretik jendea hotz zegoen, baina bukaeran infernua bera izan zen hotz geratu zena. Taula gainean bi hilobi eta gargola beldurgarri bat, atzeko aldean infernuko garrak eta hori guztia hesituta: Jam aretoa desagertu eta hilerrri beldurgarria bihurtu zen.

Hilkutxatik agertu zen King Diamond eta hilerrriko heziaren bitartekatik burua atereaz eta gurutzua osatzen zuten bi hezurren artean zuen mikrofonotik ahots beldurgarria atereaz, klasiko bat beste baten atzetik abestu zituen, eta aretoa infernua bai-



JOSETXO ARANTZABAL

Banpiroak, sorginak eta azpiko munduko izakiak izan zituen lagun Diamondek eszenatokian.

no beroago jarri zen. Azkeneko diskoko abestiren batzuk eta *Abigail* edo *Them* bezalako diskoak erreparatu zituen

Hilerrriko hainbat bizilagun ere agertu ziren eszenatokian: banpiroak, hainbat panpina zaitu zituen, sorgin zahar bat...beldurrezko film bat zirudien,baina

Hilerrriko hainbat bizilagun agertu ziren eszenatokian King Diamondekin batera

Taldea ere goi mailakoa da. Abesti guztiak behar zuten indarrez jo zituzten

ez barre egiteko beldurrezko film bat, benetan beldurgarria,gaiztoa den horietakoa. Taldea bera ere goi mailakoa da. Abesti guztiak behar zuten indarrez eta sentimenduz jo zituzten.

Zapatukoaren ondoren, ezin ukatu sasoi betean dagoela dagoela King Diamond handia.

## Rock-and-rolla: nahi beste izan zen zapatuan Arrasateko gaztetxean

Jon Berezibar

Los Cretinos arrasatearrek, Show Business txantxikuek eta Beratik etorritako Sexty Sexers taldeek osatu zuten zapatu gaueko Arrasateko gaztetxeko rock-and-roll ikuskizuna. Hiru taldeek itzel egin zuten, baina soinuaz aparte, zalantzarik gabe begirada guztiak nafarrek erakarri zituzten; bereziki Mikelek, abeslariak.

### IKUSKIZUNAREN JABE

Mikel *Strangelove* gidari, ikuskizunaren jaun eta jabe egin ziren

beratarrak, rock-and-rolletik txiki-txikitatik edan dutela garbi utzita. Horren emaitza otsaila ezkerrean daukaten diskoa da; Kaki Arkarazok ekoiztutakoa eta zapatuan aurkeztu zutena. Hala ere, euren errepertorioa behin erreta, *heroi* moduan aurkeztutako banden abesti mitikoekin amaitu zuten showa.

Une benetan onean daudela ematen du, diskoarekin eta kontzertuak geratu barik ematen. Zeresana, behintzat, pizten dute eszena gainean, baina kontzertua benetan txukuna izan zen.

Mikel *Strangelove* ipurterreak gidatzen du Berako boskote rock-zalea.

JOSETXO ARANTZABAL





# IKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**%25 DESKONTUA  
SUKALDE ALTZARIETAN**

Apirilaren 15etik ekainaren 15era

**FAGOR** 



SEGURTASUN ETA  
EROSOTASUN HANDIAGOA



**-gatik eta -tik**  
bi atzizki, esanahi ezberdina

Guk nahiago dugu esatea  
**16.800 € -gatik**

**C-MAX 30**  
urtemuga

- Azken belaunaldiko TDCi motorra • Sei aire-zaku IPSrekin • ABS + EBD • Bi aldeko aire-girogailua • Irrati CDa
- V2C: ahots eta Bluetooth® bidezko kontrola • Pribatutasun kristalak • Abiadura kontrola. **Eta guztia 16.800 €-gatik**

**MUGARRI AUTOAK**

Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Ford Focus C-MAX



Martitzenean izendatu zituen Euskaltzaindiak hizkuntza zaintzen lagunduko dioten 35 urgazle berriak. Tartean, debagoiendar bi: Pruden Gartzia

oñatiarra eta Eneko Oregi bergararra. Izendapen berriekin akademiak bere jarduna alor askotara zabaldu gura du, eta betebeharrak horretan lagundu beharko du

Eneko Oregik ere. Enpresa Zientzietan eta Ekonomian lizentziaduna, Herri Ardularitzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko zuzendaria ere bada bergararra.

## ENEKO OREGI | EUSKALTZAIN URGAZLE IZENDATU BERRIA

# "Behar berriei erantzuteko beti prest egon da eta egongo da akademia"

Jon Berezibar

**Ze lan dakar euskaltzain urgazle izendatua izateak? Betekizun zehatzik baduzue edo sari-tituluentzeko bat da?**

Egia esan behar badut, ez dakit oraindik zer-nolako lan-jarduna egin beharko edota egin ahal izango dudana Euskaltzaindian. Euskaltzain urgazleok, hitzak erakusten duen bezala, Euskaltzaindian laguntzaile gara, Euskaltzaindiaren lanetan lankide. Badakit zenbait lan-batzorde badirela, hala nola Dialektologiakoa, Gramatikakoa, Hiztegiakoa, Lege eta Dirugaia, eta abar. Horietakoren baten jardutea egokituko zaidala uste dut, ez dakit zeinetan, ordea.

**Nola hartu duzu zuk?**

Niretzako, lanerako dei bat da, nik ezagutzen dudana arloari dagokionez. Gero, noski, nik zerbaitetan lagun nezakeela uste izan dutela pozibide ere bada.

**Zelanbait, euskaltzain urgazle izateak Euskaltzaindiko kide izateko ateak zabaltzen ditu?**

Ez du zertan. Izan ere, oso oker ez banago, berrehun bat urgazle omen gara eta, aldiz, euskaltzain osoen kopurua hogeita laura mugatuta dago. Nekez izan dai-teke denontzako lekua.

**Sekula iruditu zaizu akademiako kide izan zintezkeela?**

Egi-egia, ez. Euskararen eta euskalgintzaren arlo ezberdinetan gabiltzan jendea bildu nahi izan du Euskaltzaindiak eta horregatik tokatu zait niri. Beraz, eskertzen dut eta ahal dudana neurrian ekarpena egiteko prest eskaintzen dut nire burua.

**Zeurearekin batera, arlo oso ezberdinetako jendea izendatu dute (kazetariak, informatikariak, farmazia irakasleak...). Atzeman dai-teke horren atzean Euskaltzaindiaren irekitze edo haize berriak sartzeko nahia?**

Dudarik gabe. Euskalgintza orain urte batzuk baino zabal-

agoa, hedatuagoa da gaur egun: arlo gehiagotan egiten da euskaraz eta euskara arlo gehiagotan dago. Horren ondorioz, argi ikusten da Euskaltzaindiak arlotako langileak bildu nahi izan dituela, euskara arlo horien beharretara ere hurbiltzeko.

**Euskarak gaur egun landu beharreko arloak dira horiek?**

Bai eta ez. Ez dira euskarak arrotz dituen arloak, presentzia duten arloak baizik, eta kasu batzuetan presentzia sendoa eta gorakorra, gainera: hedabideak, esaterako.

**Horren beharra du akademiak, irekitzekoa?**

Akaso goitxoa da ni lezioak ematen hasteko...

**Hala ere, nondik jo beharko luke garai berriei aurre egiteko; orain arteko lana zuzena izan da?**

Kanpotik ikusita, herritar eta euskaldun naizen aldetik, Euskaltzaindia zuzen dabilela esango nuke nik.

Azken 25 urteotan Euskal Herrian, eta hiru probintzietan bereziki, euskarak egin duen aurrerakada izugarria, irakaskuntzari esker, nagusiki, nire iritziz Euskaltzaindiak ez dio hutsik egin: euskara bera behar berri horietarako prest egon da, behar bezain arautua, zaildua. Batez beste, diot, arazo



"Lanerako dei" moduan ikusten du Eneko Oregik euskaltzain urgazle izendatzea.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

puntualak gorabehera. Eta horretan jarraitu beharra dago, hau da, euskara, komunikazio-tresna den aldetik, behar bezala prestatuta egon dadila datozen urteetan ere, euskalgintzak arlo berriak har ditzan, hain zuzen ere.

**"Izendapena lanerako deia da, nik zerbaitetan lagun nezakeela uste izan dutela"**

**"Euskaltzaindiak ez dio hutsik egin azken urteetan euskarak egin duen aurrerapausoari"**

**"Euskalgintza hedatuagoa dago, arlo gehiagotan du euskarak orain presentzia"**

**"Administrazioa, legeak eta enpresa mundua, esate baterako, ahaztuxe izan ditugu"**

**Erronka berriez hitz egiten da. Zeintzuk lirakeke horiek?**

Batzuk, topiko ere bilakatu direnak, argi daude: informazioaren teknologia berriak, zientziaren zenbait arlo, eta abar. Beste batzuk, berriz, ahaztuxe izaten ditugu eta oinarritzeko dira eguneroko bizitzarako, eta oraindik eginkizun ditugu: administrazioaren hainbat esparru, legearen eta zuzenbidearen mundua, enpresa mundua, esaterako. Guztiak hartu beharko lirakeke kontuan aurrera egiteko.

**Zer iruditu zaizkizu gainontzeko izendapenak? Asko eta askotarikoak egon dira, ezta?**

Guztiak nirea baino egokiagoak eta merezimendu handiagokoak, benetan diot.

**Tartean beste ibarreko bat ere badago, Pruden Gartzia oñatiarra; zer esan dezakezu hari buruz?**

Langile fina da Pruden eta, beraz, aukera oso ona izan dela iruditzen zait.

**Urgazleen izendapenez gain, ibarrean ere baditugu beste hiru euskaltzain oso. Harrobi oparoa da Debagoienekoa?**

Gure alderdi honek, gipuzkoarra herriz eta bizkaitarra hizkuntzaz, beti izan du euskaltzale eta euskal langile presentzia handia. Nik aita zena aipatu nahi nuke, Josu Oregi, hura ere euskaltzain urgazle izan baitzen eta hari zor baitiot euskaltasuna eta euskaltzaletasuna. Ama ahaztu gabe, noski...

**Debagoienak euskalgintzan egiten duen ekarpenaren lekuko ere bada ordezkartza hori?**

Neurri batean, hala izan dai-tekeela iruditzen zait. Badira, haatik, errealitate berriak ibarrean bertan, eta horiengandik ere zerbait espero dezakegu modu berean. Adibidez, gure ibarrean errotuta dagoen unibertsitateak euskalgintzari ekarpen gero eta oparagoa egingo diola espero dut, besteak beste.

## Euskalkien gaineko 'on-line' liburutegia argitaratu du Badihardugu elkarteak

*Herri hizkeren gaineko liburu, artikulu, CD, jolas eta bestelako materialaren erreferentziak daude liburutegian*

Leire Kortabarria

Badihardugu Euskara Elkar-  
teak euskalkien liburuak jarri du  
Interneten. Deba ibar osoko  
hizkeren gaineko datu-basea  
izan nahi du interesa duten  
guztientzako. Liburuaren errefe-  
rentziak dira batik bat, baina  
badira ere mapak, jolasak,  
CDak, bideoak... Era guztietako  
materialaren erreferentziak.  
350 lan baino gehiagoren errefe-  
rentzia dago. Datu-basearen  
helbidea hau da: [www.badihardugu.com/proiektuak/euskalkien\\_liburutegia](http://www.badihardugu.com/proiektuak/euskalkien_liburutegia).

### HAINBAT LIBURU

Badihardugu euskara elkarte-  
ak Debagoieneko eta Debaba-

rreneko euskara aztertzen du,  
eta on-line liburutegi hori dan  
horretan eman duten urrats  
berriena. Gure eskualdeko ia  
herri guztietan aztertu da ber-  
tako berbeta, eta horren gai-  
neko liburuak argitaratu izan da:  
adibidez, Bergarako, Antzuo-  
lako eta Arrasateko euskararen  
gaineko liburuak plazaratu ditu  
elkar-teak. Beste hainbat bide-  
an daude dagoeneko, Oñatiko  
berbetarena, besteak beste. Are-  
txabaletan, Eskoriatzan eta  
Elgetan ere tokian tokiko hiz-  
kerak jasotzeko bekak edo iker-  
keta-proiektuak bideratzen ari  
da Badihardugu.

### EUSKAL HERRI OSOKOAK

Debagoieneko eta Debabar-  
neko berbetez gain, euskalkien  
liburutegi hori Euskal Herri  
osoan euskalkiaren inguruan  
kaleratu diren lan eta liburu-  
en datu-basea izateko jaio da.

Liburu, artikulu eta aba-  
rrak jaisteko aukera emango du  
liburutegiak, eta horien gai-  
neko kontsultak egiteko. Aurre-  
rantzean, aldizkarietan kale-  
ratu diren artikuluen errefe-  
rentziak gehituko dizkiote.

## Hitzorduak



**BERGARA HIRIA LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO LANEN ERAKUSKETA DAGO |**  
Aroztegi aretoan dago argazki erakusketa, eta hantxe egingo dute sari banaketa ekitaldia hilaren 9an

Ekainaren 9an, datorren egubakoitzean, banatu-  
ko dituzte Bergara Hiria argazki lehiaketako sariak  
Aroztegi aretoan, 20:00etan. Iñaki Kaperotxipi  
zarautzitarra eta Joaquin Vara errenteriarra izan  
dira irabazleak. Bergarako onena Juanjo Lopez izan  
da, *Dibujando Venecia* lanarekin (argazkian).

Sari banaketa ekitaldian, Etiopiaren gainean  
Kaperotxipik egin duen diaporama emango dute.  
Jasotako argazkiak erakusketan daude Aroz-  
tegin. Antolatzaileen esanetan, aurten ere maila  
oso ona izan da, eta Euskadiko argazkilari one-  
netariko batzuen lanak ikusteko aukera dago.

## Labur

### Poesia eta margolanak lotzen dituen erakusketa ipini dute

Poesia eta margolanak batzen dituen erakusketa ipini berri dute  
Arrasateko Harresi aretoan. *Mirada poética* du izenburua, eta Mai-  
te del Rey eta Maider Zubillaga arrasatear gazteek ipini dute. Mai-  
te del Reyk poesia lanak ipini ditu eta Maider Zubillagak, margo-  
lanak. Lanok liburuxka baten batuko dituzte laster.

Erakusketa bisitatzeko aukera dago ekainaren 18ra arte, hona-  
ko ordutegian: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan: 12:00-  
14:00 eta 18:00-20:00.

### Bi antzerki lan eta Anariren kontzertua izango dira Oñatin

Oñatiko Udal Kultura Sailak ekaineko kultura programazioaren  
berri eman du. Hiru ekitaldi nagusi antolatu dituzte: batetik, Tras-  
pasos antzerki taldearen *El tiempo herido* izeneko antzezlan hila-  
ren 16an, egubakoitza, Santa Ana antzokian; bestetik, Hortzmuga  
taldearen *Zirko Iluna* umeendako ikuskizuna hilaren 17an, zapa-  
tua, Etxaluzeko plazan, 17:30ean; eta egun berean, gaztelekuan, Ana-  
riren kontzertua, 23:00etan. Gorpuzti jaiaren sarrera izango dira  
ekitaldiok; izan ere, jai hori domekan, hilak 18, ospatuko da.

### Gay, lesbiana eta transexualen gaineko zinema zikloa Arrasaten

Gay, lesbiana eta transexualen inguruko filmak ematen dihardu-  
te ekainean, eguenero, Arrasateko Amaia antzokian, Emakume  
Txokoak antolatuta. Horren barnean, datorren egunean, hilak 8,  
*20 centímetros* filma emango dute, gizonezko jaio eta emakume sen-  
titzaren *Marieta*-ren inguruan. Espainiak ekoiztutako filma da,  
2005. urtekoa

Ekainaren 15ean, zikloa bukatzeko, *La memoria de los peces*  
emango dute, mota guztietako harremanen gainean.

### ZINEMA |

• **Plan oculto** filma emango  
dute Arrasaten

Gaur, astelehena, emango dute  
film hori Amaia antzokian,  
20:30ean.

• **Volver** filma ikusteko  
aukera dago Oñatin

Gaur, astelehena, emango dute  
film hori Oñatiko kultura etxe-  
an, 19:30ean.

• **Pulp fiction** filma emango  
dute Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute  
film hori Espaloia antzokian,  
21:30ean.

### ANTZERKIA |

• **Emakumearen gaineko  
umorezko antzezlan**

*Nora hoa neska* izeneko umo-  
rezko bakarriketa egingo du  
Txirene taldeak hilaren 9an,  
egubakoitza, Amaia antzokiko  
sarreran, 22:30ean. Emaku-  
mezko baten hainbat pasarte-  
z berba egiten da. AEDk eta Kul-  
tur Errotak antolatzen dute.

### ERAKUSKETAK |

• **Eskoriatzaren gaineko  
marrazkien erakusketa**

Iraia Artzamendi arrasatearrak  
Eskoriatzako hainbat paraje-  
ren marrazkiak aurkeztu ditu  
*Eskeitza* izeneko erakusketan,  
eta liburuxka baten batu ditu.  
Ibarraundi museoan dago era-  
kusketa ikusteko aukera. Zaba-  
lik dago hilaren 18ra arte.

• **Xabier de Zerio** eskultoreak  
Urretxun du erakusketa

Xabier de Zerio bergararrak  
eskultura lanak ditu erakus-  
ketan Urretxuko Juan de Liza-  
razu aretoan ekainaren 11ra  
bitartean.

• **Bingen de Pedoren**

**margolanak ikusteko aukera**  
Bingen de Pedro margolari ber-  
gararrak erakusketa du Gas-  
teizko Felisa Navarro aretoan  
(Zerkabarren 2), ekainaren 22ra  
arte. *Dulces ojos* du izenburua  
eta 20 lanek osatzen dute.

• **Baserritarren janzkera  
tipikoak, ikusgai Eskoriatzan**  
*Herri janzkerak* izenburuare-  
kin, baserritarren jantzi tipi-  
koen erakusketa dago Inkernu  
tabernan. Uztailaren 1era arte  
dago zabalik.

• **Latinoamerikako  
emakumeen argazkiak**  
*Ahots propioa* duten emaku-  
meak delako argazki erakus-  
keta dago Arrasateko Emaku-  
me Txokoan hilaren 15era  
bitartean, 16:00-19:30.

### IKASTAROAK |

• **Helduendako euskal**

**dantzen ikastaroa**  
Helduendako euskal dantzen  
ikastaroa antolatzen dabil  
Aretxabaletako Loramendi.  
Interesa dutenek izena eman  
dezakete e-postaz ([kultura@aretxabaleta.net](mailto:kultura@aretxabaleta.net)) edo 943 71  
10 27 telefonora deituta.

• **Gazteendako hiru ikastaro  
daude Arrasaten**

Gazteendako capoeira,  
erromeriako dantza eta  
argazkigintza digital  
ikastaroak daude aukeran.  
Izenematea, Gazte Informazio  
Bulegoan (943 77 00 65).

### LEHIAKETAK |

• **Gomendatzen dizut...**

**lehiaketan parte har daiteke**  
Arrasate eta Bergaran gazte  
informazio zerbitzuek *Gomen-  
datzen dizut...* lehiaketa deitu  
dute. Oporren gaineko gomen-  
dioak eskatzen dituzte. Sariak  
dira, Arrasaten eta Bergaran,  
500 euroko balioa duen opo-  
rralditxo bat; eta Arrasaten,  
horrez gain, 17 urtetik behe-  
raokendako, 300 euroko irtee-  
ra bat.

### MUSIKA |

• **18 tabernatan kontzertuak  
Elkartasun Egunean**

Hilaren 10ean, Elkartasun  
Eguna ospatuko du Portaloira  
topaguneak Arrasaten. 18  
tabernatan kontzertuak izango  
dira, besteak beste.

• **Arrasate Musikaleko  
orkestraren kontzertua**

Arrasate Musikaleko  
orkestrak kontzertua egingo  
du hilaren 9an, eguena,  
parrokian, 20:00etan. Alberto  
Saezek zuzenduko du orkestra,  
eta bakarlariak arituko dira.



## Jaiotakoak



**Hegoa Larrea Negueruela**  
Oñati • 3,590 Kg. Maiatzak 29. Gurasoak: Iñaki (Oñati) eta Onintza (Oñati). Argazkian Hegoa kunan.



**Iker Zaitegi Aberasturi**  
Arrasate • 3,400 Kg. Maiatzak 30. Gurasoak: Aitzol (Arrasate) eta Oihana (Oñati). Argazkian Iker aita eta amarekin.



**Nerea Larrañaga Diaz de Gereñu**  
Eskoriatza • 3,530 Kg. Ekainak 1. Gurasoak: Jagoba (Eskoriatza) eta Irune (Eskoriatza). Argazkian Maite ahizparekin eta amarekin.




**Lide Arregi Markuleta**  
Oñati • 3,090 Kg. Ekainak 2. Gurasoak: Iñaki (Arrasate) eta Rosa (Oñati). Argazkian umea amaren besoetan.




**Claudia Crespo Revilla**  
Arrasate • 2,700 Kg. Ekainak 3. Gurasoak: Alfredo (Palentzia) eta Mertxe (Arrasate). Argazkian umea lo.




**Julen Barbero Beitia**  
Arrasate • 3,500 Kg. Ekainak 3. Gurasoak: Patxi (Arrasate) eta Nagore (Antzuola). Argazkian umea lo.



**Iker Murillo Estevez**  
Arrasate • 2,890 Kg. Ekainak 3. Gurasoak: Carlos (Arrasate) eta Marga (Arrasate). Argazkian umea amaren besoetan.



**Ekaitz Ena Laskurain**  
Bergara • 3,410 Kg. Ekainak 4. Gurasoak: Markel (Bergara) eta Nagore (Antzuola). Argazkian umea aitaren besoetan.



## ESKELAK ASTELEHENKO GOIENKARIA-N

85 euro  
**943 25 05 02**

## Zorion agurrak



ARRASATE  
**Unax Urizar**  
Maiatzaren 26an, 3 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.




ARRASATE  
**Iraitz Etxagibel**  
Ekainaren 3an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ARRASATE  
**Elena Kortabarria**  
Ekainaren 9an, 6 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Aitzol Elkoroberezibar**  
Hilaren 4an, 5 urte. Zorionak! Aitaita, amama eta Eli.



BERGARA  
**Xabier Uribesalgo**  
Ekainaren 7an urtebetetze eguna. Zorionak, lehengusu guztien partetik!



ARETXABAETA  
**Oinatz Irure**  
Ekainaren 4an, 2 urte. Zorionak eta muxu potolo bat. Monika.



## Hildakoak

**Jose Lizarralde Aia**  
Antzuolan, ekainaren 2an. 93 urte.

ESKER ONA

## Xabin Egaña Azurmendi

Oñatin hil zen 2006ko maiatzaren 20an, 48 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkiguteno,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko ekainaren 5ean.

## Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo  
senitartekoak zoriondu  
nahi badituzu,  
**ARRASATE IRRATIAK**  
egunero ematen dizu  
aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera  
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tarte  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**

**ARRASATE  
IRRATIA**

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:30

**Indiako emakumeak eta elkartasuna hizpide**

Zapatuan GKEek antolatutako Elkartasun Eguna izan zela eta, Maite Bazterrikarekin egin dute hitzordua. Nafarra da hura, baina gurean izan zen asteburuan. Indiako haur eta emakumeen alde egiten du lan bere erakundeak.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdi saioa' | 12:15

**Pake-Leku elkarteko batzordekideekin berbetan**

Erretiratuen Astea egingo dute Pake-Lekun; hori dela eta, erretiratuen elkarteko batzordekideekin hitz egingo du Oñati Irratiak; besteak beste, gertatutako ekintzak izango dituzte hizpide irratsaioan.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

**Ingurumenaren Eguna: Agenda 21**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 11:30

**Bizikletan, parkinson gaitza dutenen alde**

**Herri Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

**Eskoriatzako Ibarraundi museoan Aste Berdea**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 5




**Debagoienerako triatloia 21:15**

Zapatuan jokaturako Debagoieneko triatloia gainera erreportajea eskainiko dute *Harmailatik* saio berezian, Julen Iriondo aurkezlearen eskutik.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa: Mihi arraina.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka.
- 15:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Sustraia.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Behazulo.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik: Debagoieneko triatloia.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Harmailatik: Debagoieneko Triatloia.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 6



**Euskal Eskola Publikoaren jaia 21:15**

Domekan Oñatin ospatu duten Euskal Eskola Publikoaren jaia. Bertako irudiek eta lekukotasunekin egindako erreportajea emango dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz zikloa.
- 14:15 Zera dio
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz zikloa.
- 17:30 Danbaka saioa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: burdigintza.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Eskola Publikoaren festa.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Debagoieneko Triatloia.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguaztena, 7




**Bergarako jaiak 2006 21:15**

Mendekoste jaiak egubakoitzetik martitzenera ospatuko dituzte. GOITBko kamerak Bergaran ibili dira egunotan eta jai giroa ekarriko digute etxeetara, ordu erdiko saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Euskal Eskola Publikoaren festa.
- 15:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustraia.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Bergarako Jaiak 2006.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Teknopolis.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Euskal Eskola Publikoaren festa.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 8




**Mikel Etxebeste 'Didjeridu' saioan 22:15**

Mikel Etxebeste artzain arrasatearra elkarrizketatuko du Amagoia Lasagabaster kazetariak aste honetako *Didjeridu* saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustraia.
- 15:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Teknopolis.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz mintegia.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Triatloia.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire
- 23:45 Albisteak
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 9



**Xabier Amuritza 'Ilunpean' saioan 22:15**

Xabier Amuritza bertsolaria izango da aste honetako gonbidatua *Ilunpean* saioan. Oihana Elortzarekin jardungo du berbetan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean: Xabier Amuritza.
- 22:45 Albisteak
- 23:15 Debarri
- 00:15 Berriak
- 00:45 Amaiera.

**Kamera aurrean**



**"Donostian jokatzeko dugu, bada, kantxa han dagoelako, baina gu gipuzkoarrak gara"**

ANTONIO ALONSO | BRUESA-KO BIGARREN ENTRENATZAILEA  
Berriak, 2006-05-30



**"Hasi ginenean, satellite batzuk ginen, ez ginen mundutiarrak. Ni bezalako jendea nire herrian ez ginen oso normalak"**

ANJE DUHALDE | ABESLARIA  
'Ilunpean', 2006-06-02

**Debagoienerako triatloia**

**HARMAILATIK**

Astelehenean, ekainaren 5ean,  
21:15ean  
Julen Iriondok aurkeztuta



*Ikustekoa!*

Ekainaren 5a: 089 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, ekainak 5, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi)

- Pedro Ignacio Diaz (Arrasate)
- Arantxa Aperribai Oses (Bergara)

Bi gonbidapen FLORIDA - GURIDI zinemetara joateko. (Saridun bakoitzari bi).

- Begoña Iturbe Mendialdea (Aretxabaleta)
- Benito Altuna Gardoki (Aramaio)

## Ekainaren 12ko sariak



- Ekainaren 16an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den RAFA RUEDAren kontzerturako bi sarrera (Saridun bakoitzari bi).

## EIBAR-FERROL

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen. (Saridun bakoitzari bi)





## Hamarrekoa

NATXO DE FELIPE | MUSIKARIA

### "Norberaren abilezia erakusteko da karaokea, eta gurea, eskasia ezkutatzeko"

Oihana Elortza

**1. Zenbat urte daramatzazu musika egiten?** Aurten 35 urte egingo ditu Oskorrik, baina beste talde batzuetan ere jo nuen lehenago.

**2. Koruko abeslaria ere izan zara, ezta?** Bai. Etxekoek ikusi zuten ondo abesten nuela, eta, katedralaren ondoan bizi ginenez, hango koruan abesten hasi nintzen 5 urte inguru nituenean. Musika eskola izan zen nire lehen eskola, eta abesten ere hantxe ikasi nuen.

**3. Zenbat aldatu da Oskorri 35 urte hauetan?** Askok. Guk ez genuen uste horrenbeste iraungo genuenik, ez genuen taldea asmo horrekin sortu, behintzat. Musikaria izatea ez zen oso ondo ikusitako lanbidea garai hartan, baina guk horixe gura genuen.

**4. Mediku edo abokatu izateak beste kategoria bat zuen?** Medikuntza ikasten nengibilen ni eta ikasketak nahiko aurreratuta nituenean utzi nituen musika egiteko; Antton Lakak, berriz, Zuzenbideko ikasketak utzi zituen. Etxe-

koei ez zitzaion oso ideia ona iruditu hori guztia musikagatik uztea, baina zer egingo diogu ba?

**5. Berandu hasi zinen euskara ikasten.** Gaztetan ez nuen tutik ere egiten euskaraz, unibertsitatera heldu nintzenean hasi nintzen ikasten eta egiten, 17 urte inguru nituenean. Harrezkero, euskaraz bizi naiz.

**6. Karaokearen maisua zarela diote batzuek.** Karaokean norberaren abilezia demostratu gura du jendeak, eta The Pub Ibiltariarekin norberaren eskasiak ezkutatzeko ditugu jende artean. Oso ezberdinak dira.

**7. Internet bidez erosten dituzu musika CDak?** Ez. Zerbaite ikusten dudanean momentuan erosten dut eta produktu arraro baten bila baldin banabil, dendan eskatzen dut eta eurek ekartzen didate.

**8. Betiko sukaldia edo modernoa gurago?** Ezin dut aukeratu. Lehenagoak irauten badu, ona den seinale da, txarra dena laster desagertzen da eta. Gauza guztiekin gertatzen da hori.



JOSETXO ARANTZABAL

Bilbon jaio eta bizi da Natxo de Felipe, Oskorri taldeko abeslaria. Asteburu honetan, birritan etorri da Oskorri gure eskualdera: egubakoitzean Aramaioko kultura etxean egon zen The Pub Ibiltaria taldearekin eta domekan Oñatin *Desertore* diskoarekin. Kukubiltxo taldearekin *Doctor Do, Re, Mi* emanaldia ere prestatu du. Txipa aldatzen du batetik bestera salto egiteko.

**9. Txokolate-zalea ei zara. Oñati herri proposa da bisitan etortzeko, ezta?** Txokolate beltza da gehien gustatzen zaidana, eta, horregatik, gurago dut Baiona Oñati baino, baina hemengoak ere goxoak

dira. Euskal Herrian txokolate goxoa dago, benetan.

**10. Goraintziak, Marijaiari.** Konforme, emango dizkiok zure partetik.



### Biharamuna

Marijo Deogracias

## Herri ekimena babestu

Amanean izan nintzen zapatuan, Antzuolan, eta **Lide Gabilondo** ama izan zela esan zidan bere koinatu **Inak. Jose Mari Gabilondo** -aitona- ere zorioginuen. Badira, baina, Debagoienean arduratuta dabilzaten familiak ere: auzo eskola itxi nahi diete angiozarrei. Atzo protesta egin zuten Oñatin ospatutako **Euskal Eskola Publikoaren** jaian. Lehen 11 ume ari zirela esan zidan **Ainhoa Larrañagak** Angiozarren, eta "orain zazpi dabilza, baina kantpotik etorri diren guraso gazteak auzo eskola dugulako etorri dira". Elgetako Espaloian esan zidan hori; han herri eskolaren aldeko moda desfilea antolatu zuen Elgetako Guraso Elkarteak eta Angiozarko auzo eskola ez ixteko sinadurak batu. Auzo eskola herri erabilerarako dutela esan dit asteen Zamudioko euskara elkarteko batek. Bi auzo eskola zituztela azaldu zidan batek, martitzenean, **Ahotsak** aurkezteko egin zuten ekitaldiaren aurretik. Eta, hara! "Bi auzo eskola dituzue?", galdetu genien **Rebeka Uberak** eta biok, eta, "bai, baina aspaldi ez da eskolarik eman han. Herri erabilerako lokalak dira gaur egun". Angiozarkoa ere horretarako aproposa litzateke, baina sinistuta nago, **Paddy Rekalde** maisuak ere nahiago luke, hobe dela eskola legez erabiltzen jarraitzea. Agintariei galdera -hau ere erantzun barik geratuko den arren-: "Zer nahi duzue, herritar guztiok hirietara bizitzen joan eta herriak hustea?". Zerbitzu publikoak etekin ekonomikoari begira antolatzea ez da zilegi, baina betiko legez, nire iritzia baino ez da.

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

WEBGUNEAN [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767** zenbakira  
SMS bakoitzeko: 1,2€ + BEZA

**smsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) + KODEA

**Pop-Rock**  
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**  
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**  
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**  
Askatasun egarri (Lin Ton Taun) | **ASKATA**  
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**  
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**  
Dub manifest (Fermin Muguruza) | **DUB**  
Egureno (Hertzainak) | **EGURENO**  
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**  
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**  
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**  
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**  
Etorikizina (Etsaiak) | **ETORKI**  
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**  
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**  
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**  
Hegal egiten (Itzoiz) | **HEGAL**  
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**  
Ibargia (Ken7) | **KEN**  
Inpermen ate joka (Gatibu) | **INPER**  
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**  
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**  
Lau Teilatuta (Itzoiz) | **ITZOILAU**  
Laztana (Latzeta) | **LAZTA**  
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**  
Loretoa (EXKIKU) | **LORE**  
Marea Gora (Itzoiz) | **MAREA**  
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**  
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**  
No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**

Salve (La Polla) | **SALVE**  
Sari Sari (Kortatu) | **SARRI**  
Sorginen leizean (Ekixu) | **SORGIN**  
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**  
Txus (La Polla) | **TXUS**

**Trikitixa**  
Bexamela ta pastela (Maixa ta biari) | **BEXAMELA**  
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**  
Hiik lan eta nik jai (Tapia) | **HIK**  
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | **ITSAS**  
Kupela (Epelke eta Larrañaga) | **KUPELA**  
Mila galdera (Alaitz/Maideri) | **MILAJ**  
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**  
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**  
Txanpon baten truke (Alaitz/Maideri) | **TXANPON**

**LOGOAK (SMS 1)**  
KODEA

SATANAS	EHZ	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURRIS	I ORA	BABAK
BASAJAUN	IKURRIS	LAUZ	ARRANAK

**OHARRAK**  
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiritu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarri](http://www.smsoinu.com/bateragarri)  
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzeko, jar zaitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaisiera bakarrak ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. \* Vodafone: deitu 123-ra. \* Movistar: deitu 609-ra.  
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileak eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.